



PERITU- PRAKTIKA SOZIALA

Lanbide librean
jarduteko gida



BIZKAIKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFICIALA
COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE BIZKAIA



GIPUZKOAKO GIZARTE
LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA
COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO
SOCIAL DE GIPUZKOA



Arabako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofiziala
Colegio Oficial de Trabajo Social de Alava



COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE NAVARRA
NAFARROAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA
NAVARRA · NAFARROA

Argitaratzailea:



BIZKAIKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFICIALA
COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE BIZKAIA



GIPUZKOAKO GIZARTE
LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA
COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO
SOCIAL DE GIPUZKOA



Arabako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofiziala
Colegio Oficial de Trabajo Social de Alava



COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE NAVARRA
NAFARROAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA
NAVARRA · NAFARROA

Martxoa 2025

Egilea:

Josefa Moreno Román



Diseinua Maketazioa:

Silvia Martín Díaz

Lege gordailua: LG BI 633-2025

EGILEA



Josefa Moreno Román

Gizarte Langintzan diplomaduna da eta Kriminologian aditua, Granadako Unibertsitatean.

JMR. Gizarte Langintza eta Kriminologia Kabineteko zuzendaria.

Peritu sozial aditua da gai hauei buruzko peritazioan: Familia Eskubidea; desgaitasuna duten pertsonei laguntzeko neurriak; genero-indarkeria eta etxeko indarkeria; trafiko-istripuak, lan-istripuak eta zabarkeria medikoak; eta etxebizitza-arloa (etxegabetzeak, hipoteka-betearazpenak).

Gizarte Peritutzako aholkularia.

Alacanteko Gizarte Langintzaren Elkargo Profesionaleko Adituen Taldeko kidea ere bada GIZARTE-PERITUTZAREN ETA GIZARTE-LANGINTZA JUDIZIALAREN EREMUAN.

“El dictamen pericial social. Una propuesta metodológica” (2018) liburuaren egilea eta “Medidas de apoyo a las personas con discapacidad. Aportación del trabajo social” (2023) liburuaren egilekidea; biak Malagako Gizarte Langintzaren Elkargo Profesionalak argitaratuak.

Gizarte Langintzaren Elkargo Profesionalean gizarte-peritutzaren inguruan antolatutako ikastaroetako irakaslea 2004. Urteaz geroztik.

Gizarte-peritutzari buruzko Webinar, mahai-inguru, jardunaldi, mintegi eta abarretako hizlaria.

Aurkibidea

Gidaren aurkezpena	9
1. Sarrera	11
2. Helburuak	13
3. Zer da gizarte-lan forentsea?	15
4. Peritua izatea	17
4.1. Zer da peritu bat?	
4.2. Zein da haren funtzio prozesala?	
4.3. Zer-nolako baldintzak bete behar dira peritu bezala lan egiteko?	
4.4. Zer-nolako betebeharrak ditugu peritu gisa?	
4.5. Zer-nolako erantzukizunak izan ditzakegu gure peritu-jardunean?	
4.6. Zein prozedura judizialetan esku har dezakegu peritu sozial gisa?	
4.7. Gauza bera al da peritu edo lekuko peritu izatea?	
4.8. Peritu bezala lan egin al dezakegu lanbidearen jardun librean, administrazio publikoan lan egiten badugu?	
5. Peritu-irizpena	29
5.1. Zer da peritu-irizpena?	
5.2. Zein da horren helburua?	
5.3. Zer esan nahi du peritu-irizpena froga ez-loteslea izateak?	
5.4. Eta froga ez-loteslea bada, zein alderdi hartzen ditu kontuan auzitegiak hura baloratzeko?	
5.5. Zer baldintza bete behar ditu peritu-irizpen batek?	
5.6. Gauza bera al dira peritu-irizpen sozial bat eta txosten sozial bat?	

6.1. Peritu judiziala

- 6.1.1. Nola lor dezakegu peritu judizial izatea?
- 6.1.2. Kargua onartzeko betebeharra al dugu judizialki izendatzen gaituztenean?
- 6.1.3. Elkargoko zerrendatan sar al gaitzke peritazioei buruzko prestakuntzarik izan gabe?
- 6.1.4. Judizialki izendatzen bagaituzte, zer-nolako urratsak jarraitu behar ditugu?
- 6.1.5. Zer-nolako ondorioak ditu alderdiak edo alderdiek eskatutako funts-hornidura ezarritako epean ez ordaintzeak?
- 6.1.6. Peritu-eragiketetan alderdiak presente egon al daitezke?
- 6.1.7. Peritu-irizpena egin al dezakegu alderdietako batzuekin bitartekaritzalana egin badugu?
- 6.1.8. Prozeduran peritu batekin baino gehiagorekin egokitu al gaitzke?
- 6.1.9. Kargua onartzean eta/edo irizpena berrestera koan zer curriculum dugun galde al diezagukete?

6.2. Alderdi-peritua

- 6.2.1. Alderdi batek kontratatzen bagaitu, zer-nolako urratsak jarraitu behar ditugu?
- 6.2.2. Zer egin behar dugu alderdi-peritu gisa jardun nahi badugu?
- 6.2.3. Elkargoaren zerrendan sar al gaitzke judizialki jarduteko eta, aldi berean, alderdi gisa jarduteko?
- 6.2.4. Narriatuak bagara eta narrioa egia ez bada, zer egin dezakegu?
- 6.2.5. Geure burua alderdi-peritu gisa ezagutzera eman al dezakegu edota horretan jardun peritu-azterketari buruzko prestakuntzarik izan gabe?

7. Ahozko ikustaldian peritua egotea. Berrespena

- 7.1. Zer da berrespena?
- 7.2. Nahitaezkoa al da berrestera joatea?
- 7.3. Zer gerta daiteke berrestera joaten ez bagara?
- 7.4. Zer gerta daiteke hitzordua jarri diguten egunean ezin bagara joan ezinbesteko arrazoiengatik? Eta egun berean beste seinalamendu judizial bat badugu?
- 7.5. Berrestera joan behar dugun hirian bizi ez bagara, ekintza hori bideokonferentziaz egitea eska dezakegu?

8. Peritu-praktika eta modu librean jardutea **51**

8.1. Alderdi tekniko fiskalak

- 8.1.1. Profesional autonomo gisa alta eman behar al dugu peritu gisa jardun behar badugu?
- 8.1.2. Non eman behar dugu alta?
- 8.1.3. Nola jakin dezakegu EJZren zein epigrafe adierazi behar dugun?
- 8.1.4. Peritu-jarduera ohikoa ez bada, hots, noizean behin egiten badugu, nahitaezkoa al da pertsona autonomo moduan alta ematea?
- 8.1.5. Fakturak egitea; zer izan behar dugu kontuan?
- 8.1.6. Euskal autonomia erkidegoan fakturak egitea.
- 8.1.7. Jarduera librean profesional gisa jarduten badugu, gure lana fakturatu behar dugu, baina zenbat kobratu dezakegu peritu-irizpen baten truke?
- 8.1.8. Zer nolako alderdiak/kontzeptuak kontuan izan behar ditugu peritu-irizpenaren aurrekontua egiterakoan?

9. Horren inguruko beste gai batzuk **59**

9.1. Gizarte-zerbitzuak eta justizia-administrazioa

- 9.1.1. Gizarte zerbitzuetan lan egiten badugu eta arazo bati buruzko txosten soziala eskatzeko eskaera judiziala iristen bazaigu, uko egin al diezaiokegu?
- 9.1.2. Noren izenean egingo dugu txosten sozial hori, peritu gisa edo lekuko-peritu gisa?
- 9.1.3. Txosten sozialak peritu-izaera al du?
- 9.1.4. Epaitegitik dei al diezagukete aldeztu aurretik eskatu ziguten txosten soziala berrestera joateko?
- 9.1.5. Txosten soziala abokatu batek modu pribatuan eskatzen badigu, hori egiteari uko egin al diezaiokegu?

9.2. Beste erakunde batzuk

10. Eta amaitzeko... **63**

11. Erreferentzia **65**

GIDAREN AURKEZPENA

Arabako, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialek gida hau aurkezten dute, lanbidearen jardun librean gizarte-peritutzaren arloan interesa duten Gizarte Langintzako profesionalak informazioa eta orientazioa eskaintzeko asmoarekin.

Gizarte-peritutzako profesional batek arlo sozialean espezializatutako ezagutzak ematen dizkio agintaritza judizialari, peritu-irizpenaren bidez, eta irizpen horretan jasotzen dira prozedura judizialaren xede den gaian eragina duten faktore sozialak. Hori dela-eta, funtsezkoa da faktore horiek profesional adituek behar bezala baloratzea; hots, gizarte-peritutzako profesionalak.

Prozedura Zibilaren Legearen arabera, epaiketa batean erabili ahal izateko frogabidea, besteak beste, peritu-irizpena da, eta frog hori alderdiek nahiz Auzitegiak eska dezakete, kasua ebazteko garrantzitsua eta baliagarria dela uste badute.

Peritu-irizpenaren funtzioa prozesala denez, horrek zorrotza eta objektiboa izateaz gain, behar bezala oinarrituta egon behar du, erabakigarria izan baitaiteke, besteak beste, familiarekin, desgaitasunarekin, genero-indarkeriarekin eta haurren babesgabetasunarekin lotutako prozeduretan erabaki judizialak hartzeko orduan.

Peritu praktika soziala jardun librean egingo da Gizarte Langintzako profesionalak peritu judizial gisa jarduten duenean Elkargoaren zerrendatik deitu diotelako, edota modu pribatuan jarduten duenean abokatu batek hala eskatu diolako.

Elkargokideek, Elkargo Profesionalek zerrenda horretan parte hartzeko egiten duten eskaera ikusita, hainbat zalantza adierazi dituzte balorazio profesional eta lan horren inguruan. Beraz, gida honen helburua da peritu praktika sozial horri buruzko jarraibideak, adierazpenak, iradokizunak eta ekarpenak egitea.

Gida hau argitaratuta, prozesu judizialetan gizarte-peritutzak duen garrantzia nabarmendu nahi dugu baita ere, eta, lerro hauen bitartez, arlo hori sektore publikoan indartzeko dagoen beharra aldarrikatu nahi dugu. Gaur egun, epaitegietan ez dago Gizarte Langintzako profesional nahikorik peritazio sozialak behar bezala burutzeko. Ondorioz, plantillak handitzea eta indartzea komeni da. Ezinbestekoa da erakundeek konpromisoa hartzea prozesu judizialetan kalitatezko arreta publikoa bermatzeko moduko giza baliabideak jartzeko, Gizarte Langintzaren presentzia handiagoa eta indartsuagoa izan dadin epaitegietan, pertsona guztientzako esku-hartze egokia ziurtatzearen.

Elkargo profesionaletatik apustu irmoa egiten dugu esparru publikoan gizarte-peritutza gara dadin; izan ere, praktika horren jardun librearekin batera, Gizarte Langintzako lan-arlo espezifiko bat osatzen dute.

Testuinguru horretan, gida hau tresna baliagarria da arlo juridikoaren barnean gure diziplina modu profesionalean, zorrozki eta kalitatez gauzatzeko, herritarrei kalitatea eta ongizatea emango dien praxi on bat eskaintze aldera.

Azken batean, espero dugu eta nahi dugu gida hau zuretzat baliagarria izatea eta perituaren praktika sozialean lagungarri izatea, bai Elkargoetako perituen zerrendetan parte hartu nahi baduzu, bai alderdi-peritu gisa jardun nahi baduzu. Hori horrela bada, gida hau egitera bultzatu gintuen helburua beteko dugu.



1. SARRERA

Prozedura judizial batean, prozedura horretako gertakariak edo arazoak ebatzi ahal izateko ezagutza juridikoez bestelako ezagutza espezifikoak behar badira, agintaritza judizialak ezagutza horiek eman diezazkieketen adituak behar ditu, horiek gabe zaila izango baita ebaztea. Pertsona horiei peritu deitzen zaie, eta horien funtzio prozesala da azterketa-gaiaren gaineko iritzia teknikoa eta zientifikoa ematea, agintaritza judiziala ilustratzeko, hobeto ebatzi dezan.

Peritu gisa, peritu judizial edo alderdi-peritu moduan lan egin dezakegu. Lehenengoak, judizialak, Talde Tekniko Judizialean dauden profesionalak dira eta gure Elkargo Profesionalek Epaitegietara urtero bidaltzen duten zerrendan sartzen direnak ere bai. Bigarrenak, alderdi bateko perituak, jardura librean abokatuei zerbitzuak modu pribatuan eskaintzen dizkieten profesionalak izango dira. Talde Tekniko Judizialek atxiki gabeko perituek peritu judizial gisa (Epaitegitik zerrendaren arabera deitzen badien) edo alderdiko peritu gisa (bezero partikular baten enkarguari erantzuten badiote) lan egin ahal izango dute.

Peritu batek burututako ikerketa forentsearen emaitza peritu-irizpena izeneko dokumentua izango da, froga-bide prozesal gisa hartzen dena, eta agintaritza judizialak baloratzen ez badu ere, irizpenaren kalitatearen arabera, froga oso garrantzitsua izatera iritsi daiteke prozedura judizialaren barnean, ebatzi beharreko gertakaria edo gaia baloratzeko egiten duen ekarpenarengatik.

Edozein prozeduratan horren esku-hartzeak funtzio garrantzitsua duenez, zuzenbidera egokitu behar da; horregatik, Prozedura Zibilari buruzko urtarilaren 7ko 1/2000 Legeak (aurrerantzean PZL) arautzen du peritu-jardueraren arau-esparrua, eta lege hori, osagarria izanik, prozesu judizial guztietan aplikatu behar da (zibilak, sozialak, penalak, auzibidezkoak), prozesu judizial bakoitzean agindu dezaketenez espezialitate jakin batzuetan izan ezik.

Lege horren arabera, peritu baten izateko arrazoia eta haren behar prozesala 335. artikuluan aurkitzen da. Horrek zehazten du noiz den ezinbestekoa prozedura judizialean egotea; hain zuzen ere, ezagutzak behar direnean (besteak beste, zientifikoak) gai horretan garrantzitsuak diren gertakariak edo inguruabarrak baloratzeko edo horien gaineko ziurtasuna lortzeko. Alderdiek aukera izango dute dagozkien ezagutzak dituen peritu-irizpena prozesuan aurkezteko edota, Lege honetan aurreikusitako kasuetan, Auzitegiak izendatutako perituak irizpena ematea eskatzeko.

Era horretan, II. Liburuan, I. Tituluan, VI. Kapituluaren eta "Perituen irizpena" izeneko 5. Atalean, 335. artikulutik 352. artikulura bitarte, peritu-jardunari buruzko guztia aurki dezakegu. Artikuluaren, besteak beste, honako hauek jasotzen dira: irizpenaren xedea

eta zina; perituek izan beharreko baldintzak; perituaren izendapen judizialerako prozedura; izendatutako perituari egindako deia; funtsak onartu, izendatu eta hornitzea; perituen narria eta haien denbora eta forma, baita haien abstentzioa ere; alderdiak peritu-eragiketetan egotea; irizpena ematea eta berrestea; eta epaiketean edo ikustaldian jardun ahal izatea.

Peritu-lanarekin ere zerikusia duen eta aipatu beharrekoa den beste lege bat 1/1996 Legea da, urtarrilaren 10ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa (aurrerantzean, DLJL). Konstituzioaren 119. artikulua arabera, justizia doakoa izango da Legeak hala xedatzen duenean eta, nolahi ere, auzitan aritzeko baliabide nahikorik ez dutela egiaztatzen dutenei dagokienez. Eta, Konstituzioaren agindu horri erantzuten dio Lege honek; izan ere, arrazoi azalpenetan jasotzen duen moduan, horren helburua da doako justizia-sistema bat arautzea, auzitan aritzeko baliabide nahikorik ez dutela egiaztatzen duten herritarrek beharrezko profesionalak izan ditzaten babes judizial eraginkorra izateko eta haien eskubide eta interes legítimoak behar bezala defendatzeko. Horrela, profesional horien artean, perituak, eta, beraz, doako aditu-laguntza aurkitzen dira.

Araudi-esparru horren barruan, peritu guztiek nahitaez bete beharreko zenbait jardura daude, izan peritu judizialak edota alderdi-perituak, eta zalantzak sor daitezke jardura horiek burutzeko moduaren inguruan. Hori dela-eta, gida honetan, jardun librean peritulan aritzean izan ditzakezun galdera askoren erantzunak eskaintzen dira.



2. HELBURUAK



3. ZER DA GIZARTE-LAN FORENTSEA?

Peritu sozial gisa jardutean, arlo juridikoan aurkitzen gara, eta horren barruan Gizarte Langintza egiten denean, *Gizarte Lan Forentsea* deitzen zaio. Beraz, esan dezakegu Gizarte-Lan Forentsea Justizia Administrazioan eta Justizia Administrazioetik egiten dena dela.

Peritu-praktika egiten Estatu Batuetan hasi ziren XIX. mendearen amaieran, eta horren aitzindari batzuk bezala, Mary Richmond, Jane Adams, Virginia Robinson, Jessie Taft edo Dorothea LyndeDix aipa ditzakegu; izan ere, paper garrantzitsua bete zuten Adingabeen Auzitegian, espetxeetako gizarte-langintzan edo adopzioari buruzko gaitan, besteak beste.

Espainiari dagokionez, Gizarte Lan Forentsea 80ko hamarkadan sortu zen, maiatzaren 13ko 11/1981 Legea, filiazioaren, guraso-ahalaren eta ezkontzaren araubide ekonomikoaren arloan Kode Zibila aldatzeari buruzkoa, aldarrikatu ondoren. Lege horretan Familia Zuzenbidean espezializatutako Epaitegiak sortzea aurreikusten zen, eta agindu hori uztailaren 3ko 1322/1981 Errege Dekretuaren bidez gauzatu zen. Ondoren, uztailaren 7ko 30/1981 Legeak, deuseztasun-, banantze- eta dibortzio-kausetan jarraitu beharreko prozedura arautzen duenak, Kode Zibilaren 92. artikuluan ondorengoa adierazi zuen: “Epaileak, ofizioz edo interesatuek hala eskatuta, espezialisten irizpena eskatu ahal izango du”.

Lege-testuinguru horren ondorioz, Justizia Administrazioari laguntzen aitzindariak Familia Epaitegietako Talde Psikosozialak izango dira.

Denborarekin, arlo judizialean Gizarte Langintzaren presentzia sendotzen joan diren Legeak aldarrikatuko dira. Esate baterako, 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, aipa dezakegu, Genero-indarkeriaren aurka Babes Osoa emateko Neurriei buruzkoa. Hain zuzen ere, Emakumeen aurkako Indarkeriaren gaineko Epaitegiak sortu zituen eta, aldi berean, laguntza-unitateak jarri zizkien, Auzitegiko Balorazio Integraleko Unitateak deiturikoak. Unitate horietako talde batzuetan, Gizarte Langintzako profesionalak daude. Halaber, ekainaren 2ko 8/2021 Legea, desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko legeria zibila eta prozesala aldatzen duena. Lege-arau horrek protagonismo nabarmena ematen dio Gizarte Lan Forentseari, pertsona horiei laguntza emateko prozedura judizialean, eta arlo sozialeko peritu-irizpena nahitaezkoztat jotzen du une prozesal batzuetan eta hautazkoa beste batzuetan.

Hori dela-eta, esan dezakegu Gizarte Langintzako profesionalak esparru juridikoan presente gaudela gaur egun, bai Epaitegietako eta Auzitegietako hainbat talde teknikotan, bai Elkargoko zerrendek deitutako peritu judizial gisa, bai peritu pribatu moduan, pertsona bere gizarte-dimentsioan eta gizarte-dimentsiotik begiratzeko eta ulertzeko Zuzenbideari laguntzen.



4. PERITU IZATEA

4.1. Zer da peritu bat?

Prozedura judizial batean ebazten diren gaiak askotan oso konplexuak direnez, ezagutzak behar izaten dira; besteak beste, ezagutza zientifikoak, gai horiei buruzko erabakiak hartzeko. Ondorioz, Zuzenbideaz bestelako diziplinetako profesionalak behar izaten dira, ezagutza horiek eman ditzaketenak, gai horiek hobeto ebazten laguntzeko. Profesional horien artean, peritu deitzen direnak daude, lan horretarako horien esperientzia beharrezkoa baita.

Espainiako Errege Akademiaren Hiztegian (2014), peritua honela definitzen da: gai batean aditua den pertsona, gai horretan esperientzia edo praktika duena.

Horren inguruan, PZLren 335. artikuluan ondorengoa adierazten da:

Gaiaren inguruan garrantzitsuak diren gertakariak edo inguruabarrak baloratzeko edo horien gainean ziurtasuna izateko ezagutza zientifikoak (...) behar badira, dagozkien ezagutzak dituzten perituen irizpena aurkeztu ahal izango dute alderdiek prozesuan edota, Lege honetan aurreikusitako kasuetan, Auzitegiak izendatutako peritu batek irizpena emateko eskatu ahal izango dute.

4.2. Zein da haren funtzio prozesala?

Peritu izateko arrazoia da ezagutza espezializatuak behar dituen gai baten inguruan, gai hori ebazteko ezagutza horiek ematea, agintaritza judizialak ezagutza horiek ez izateagatik. Hori dela-eta, adituaren funtzio nagusia da prozedura judizial batean azaldutako gaiari buruz iritzi teknikoa eta zientifikoa ematea, eta, era horretan, gertaerak ulertzen laguntzea, epaileak edo Auzitegiak erabaki egokia har dezan prozeduraren xedeko kasuari dagokionean; azken batean, perituaren eginkizuna da agintaritza judiziala ilustratzea, tresna lagungarri gisa.

4.3. Zer-nolako baldintzak bete behar dira peritu bezala lan egiteko?

Gure kasu sozialean, peritu gisa lan egite aldera, jarduera hori burutu ahal izateko eta horretarako modu egokian aritu ahal izateko baldintza batzuk izan behar ditugu; hau da, nahitaez bete beharreko baldintzak.

Peritu gisa jarduteko lehen baldintza legezkoa da, eta PZLren 340. artikuluan honela adierazten da:

Perituek irizpenaren xedeko gaiari eta haren izaerari dagokien titulu ofiziala izan beharko dute.

Besteak beste, ezagutza zientifikoak izatea, auzi batean azaltzen diren interes bereziko gertakari edo inguruabarrak aztertze edo haien gainean ziurtasuna izateko; horrela eskatzen du PZLk bere 335. artikuluan. Horren aurrean, interpreta dezakegu ezagutzak perituaren diziplinak berak emandakoaren ingurukoak ez ezik, baloratu beharreko gaien ingurukoak ere badirela; hau da, iritzia eman beharreko peritu-xedeari buruzkoak.

Illo horretan, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salak 2022ko otsailaren 17an emandako Epaian (4. Atala), honako hau adierazten da:

*Bada, txosten eta irizpen horiek ofizialki “perituen irizpena” deituriko froga-bidearen barruan sartu ahal izango dira, Prozedura Zibilaren Legearen 335. artikulua horri ematen dizkion ezaugarriak baldin baditu; alegia, “ezagutza zientifikoak, artistikoak, teknikoak edo praktikoak beharrezkoak izatea, gaiaren inguruan garrantzitsuak diren gertakariak edo inguruabarrak baloratzeko edo horien gainean ziurtasuna izateko”, eta peritu gisa izendatutako pertsonak “dagozkien ezagutzak izatea”. Hitz gutxitan esanda, **kontua da gertakari bat egiaztatze edo ezagutza espezializatuak behar direla**[1]. (6. or.).*

[1] Letra lodia egilearena da.

Azkenik, beste baldintza bat elkargokide izatea litzateke. Horri dagokionean, esan behar dugu hori derrigorrezkoa dela Konstituzio Auzitegiaren 3/2013 Epaiaaren arabera; izan ere, irizpen hori ematen du Administrazio Publikoan nahiz erakunde pribatu baten eremuan lan egiten duten gizarte-langileentzat edota norberaren kontura aritzen direnentzat. Era berean, lanbide-jardunerako ezinbesteko baldintza moduan ezartzen dute honako lege hauek:

Elkargo Profesionalei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legeak, 3.2 artikuluan:

Lanbidean jarduteko ezinbestekoa izango da dagokion Elkargo Profesionalean sartuta egotea, Estatuko lege batek hala ezartzen duenean;

Gizarte Langileen Elkargo Ofizialak sortzeari buruzko apirilaren 13ko 10/1982 Legeak, 3. artikuluan:

... lanbidean jarduteko nahitaezkoa dagokion Elkargoan sartzea;

Eta otsailaren 23ko 174/2001 Errege Dekretuak, Gizarte Langintzako Diplomadunen eta Gizarte Langileen Elkargo Ofizialen Estatutu Orokorrak onartzen dituenak, 9.b artikuluan:

Lanbide-egoitza dagoen Elkargoan sartuta egotea.

4.4. Zer-nolako betebeharrak ditugu peritu gisa?

Peritu gisa jarduten dugun unetik, PZLk jasotzen dituen lege-eskakizunetatik eratorritako betebeharrak batzuk hartzen ditugu, baita gure Kode Deontologikoan jasotako betebeharrak deontologikoak ere.

Epaile batek izendatuta nahiz alderdiek izendatuta hartzen dugun lehen betebeharra da irizpena adierazitako epearen barruan egitea. Epaileak izendatuz gero, horrela ezartzen du PZLren 346. artikuluan:

Auzitegiak izendatzen duen perituak idatziz emango du irizpena, eta bitarteko elektronikoen bidez helaraziko dio Auzitegiari, adierazitako epearen barruan.

Alderdiek izendatutako kasuan, 336.1 artikuluan ezarritakoa bete behar da:

Auzilariak dituzten irizpenak, eurek izendatutako perituek egindakoak eta beren eskubideak defendatzeko beharrezkotzat edo komenigarritzat jotzen dituztenak, demandarekin edo erantzunarekin batera aurkeztu beharko dituzte, 337. artikuluan xedatutakoa alde batera utzi gabe.

Baita 337.1 artikuluan zehaztutakoa ere:

Alderdiek ezin badituzte aurkeztu haiek izendatutako perituek egindako irizpenak, demandarekin edo erantzunarekin batera, (...) horiek eskuratutakoan aurkeztu beharko dituzte aurkako alderdiari helarazteko, eta, nolanahi ere, epaiketa arruntaren aurreko entzunaldia hasi baino bost egun lehenago edo demanda aurkezten denetik edo hitzezko epaiketan erantzuna ematen denetik hogeita hamar egun igaro baino lehen.

Legezko beste betebeharrak bat da objektibotasunez eta inpartzialtasunez jardutea; baldintza horiek PLZren 335.2 artikulua araberaren berraztertzea dira. Bertan jasotzen da peritu orok egin beharreko zina edo promesa.

Irizpena ematean, peritu guztiek adierazi beharko dute, egia esateko zina edo promesa eginda, ahalik eta objektibotasun handienarekin jardun dutela eta, hala badagokio, jardungo dutela, kontuan izanik edozein alderdiri mesede egin diezaiokeena eta kaltea eragin diezaiokeena. Halaber, adierazi beharko dute, peritu gisa duten betebeharra betetzen ez badute, ezagutzen dituztela izan ditzaketen zehapen penalak.

Epaileak izendatuta jarduten badugu, zin hori egingo dugu izendatu eta kargua onartzen dugun unean; alderdiek izendatuz gero, berriz, idatziz adieraziko dugu irizpenean bertan.

Gure objektibotasuna eta inpartzialtasuna arriskuan jar dezaketen legezko kausaren bat gertatzen bada, peritu-irizpena egiteko abstentzioa gure beste betebeharretakoa bat izango da. Betebehar hori jasotzen da PZLren 100.2 artikuluan, bai epaileak, bai alderdiak izendatuak izan bagara; izan ere, legez aurreikusitako abstentzio-kausaren bat egonez gero, gaiaren ezagutzari uko egin behar diogula adierazten du. Bestalde, jada ezarritakoez bestelako abstentzio-arrazoirik ezingo dugu alegatu.

Horren inguruan, orobat, honako hau esaten da PZLren 105. artikuluan:

Gaiaz arduratzen den Epaileak, Atalak edo Salak edo, hala badagokio, Justizia Administrazioako Letraduak izendatutako peritua abstenitu egin beharko da, legez aurreikusitako kausaren bat gertatzen bada. Abstentzioa ahozkoa edo idatzizkoa izan daiteke, betiere behar bezala justifikatzen bada.

Abstenitzeko legezko kausak Botere Judizialak uztailaren 1ean emandako 6/1985 Lege Organikoaren 219. artikuluan nahiz PZLren 124.3 artikuluan jasotzen dira.

Gure beste betebeharretakoa bat Auzitegian agertzea izango litzateke; hau da, peritu-irizpena ahozko ikustaldian berrestea, horretarako dei egin badigute.

Eta, azkenik, betebehar hori gure Kode Deontologikoan ere jasotzen da; hain zuzen ere, 49. artikuluan, sekretu profesionala aipatzen baitu:

Sekretu profesionala zaindu beharko dute Gizarte Langintzako profesionalek, haien titulazioa- jarduera-eremua eta lanbide-jardunaren modalitatea edozein direla ere.

4.5. Zer-nolako erantzukizunak izan ditzakegu gure peritu-jardunean?

Peritu-jarduera zuzenbidearen arabera egiten ez bada edo praxi txarrarekin burutzen bada, horrekin lotuta dauden zenbait erantzukizun izango ditugu. Erantzukizun horiek zibilak, penalak edo diziplinazkoak izan daitezke.

Alderdien aurrean erantzukizun zibila izango dugu, baldin eta praxi txar batek eragiten badie; kasu horretan, salaketa zibila egin diezagukete eta eragindako kalte-galerengatik erantzukizuna eskatu, batez ere irizpen hori agintari judizialak kontuan izan badu prozeduran auzigai bat ebazteko. Praxi txarraren adibide bat litzateke okerreko irizpen bat egitea, ondorio okerretara eramango gaituena, eta, aldi berean, alderdietako bati kalte egin diezaiokeena.

Erantzukizun-mota hori honelakoa izan daiteke:

Kontratuz kanpokoak

Erantzukizun hau judizialki izendatzen gaituztenean gertatzen da, eta, kasu horretan, ez dago alderdiekiko kontratu-harremanik. Egoera horren aurrean, Kode Zibilaren 1.902 artikulua bete beharko dugu:

Norbaitek, egitez edo ez-egitez, beste bati kaltea eragiten badio, tartean errua edo zabarkeria izanik, eragindako kaltea konpondu beharko du.

Kontratuzkoa

Erantzukizun hau alderdien aldetik izendatzen gaituztenean gertatzen da. Kasu honetan, kontratu-harremana dago modu pribatuan zerbitzu baterako edo peritu-irizpena egiteko kontratatzen gaituenarekin, eta, beraz, “zerbitzua emateko” merkataritza-kontratua egin behar da. Horren aurrean, Kode Zibilaren 1.101 artikuluan xedatutakoa bete beharko dugu:

Eragindako kalte-galeren ordaina eman beharko dute euren betebeharrak betetzean doluz nahiz zabarkeriaz jarduten dutenek edo berandutza-egoeran jarri direnek eta edozein modutan betebehar horien edukia urratzen dutenek.

Gure jardun profesionalean hirugarren bati eragin ahal izan dizkiogun kalte-galeren aurrean sor daitezkeen erreklamazioak estaltzeko, garrantzitsua da Erantzukizun Zibil Profesionaleko Aseguru bat izatea, epai irmo baten kasuan aurre egin beharreko kalte-ordainak estali ahal izateko; bestela, gure ondare pertsonalarekin ordaindu beharko ditugu.

Horri dagokionean, Gizarte Langintzako Kontseilu Orokorrak hitzarmen bat egin du artekaritza baten bidez, era horretako aseguru bat eskaintzeko arrazoizko prezioan, interesatutako elkargokide profesional guztiei.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialen kasuan, erantzukizun zibileko aseguru hori nahitaezkoa da, eta horren kostua elkargoaren kuotan sartzen da. Era berean, Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialaren kasuan, elkargokideek erabakitzen dute aseguru hori kontratatu ala ez.

Erantzukizun penala, batez ere, lekukotza faltsuaren delituaren bidez gerta daiteke; hau da, egirik ez esatea maltzurkeriaz edo, egiri funtsean huts egin gabe ere, egia errezeloz, zehaztasunik eman gabe edo ezagutzen ditugun gertakari edo datu garrantzitsuak isilarazik aldatzea, horrela, objektibotasunez jokatzeko eta egia esateko betebeharra urratuko baita. Legezko printzipio horiek PZLren 335.2 artikulua araberak eska daitezke.

Delitu hori Zigor Kodearen 459. eta 460. artikuluetan jasota dago. Lehen kasuan, zigorrak hamabost hilabete eta egun batetik bi urtera bitarteko espetxealdia eta 4 hilabete eta 16 egunetik 6 hilabetera bitarteko isuna izan daitezke, lanbide edo ogibide, enplegu edo kargu publikorako desgaitasuna bereziko zigorraz gain, sei urtetik hamabi urtera bitartekoa. Bigarren kasuan, zigorra izango da sei hilabetetik hamabi hilabetera bitarteko isuna eta, hala badagokio, enplegu edo kargu publikoa, lanbidea edo ogibidea etetea sei hilabetetik hiru urtera bitarte.

Azkenik, peritu-jardueran izan dezakegun diziplinazko erantzukizuna jokabideko edo etika profesionaleko arau batzuk haustearekin lotuta dago, eta erantzukizun horren berri eman beharko diogu gure Elkargo Profesionalari.

4.6. Zein prozedura judizialetan esku har dezakegu peritu sozial gisa?

Peritu sozial gisa, besteak beste eta batez ere, honako prozedura hauetan jardun dezakegu: Familia Zuzenbideari buruzko prozeduretan; desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko neurriak emateko prozedura judizialetan; genero-indarkeria eta etxeko indarkeria kasuak epaitzen diren prozeduretan; trafiko-istripu, laneko istripu eta zabarkeria medikoen bidezko kalte-galerak baloratzen diren prozeduretan;

eta etxebizitza-arloko prozeduretan (adibidez, etxegabetzeetan eta hipoteka-betearazpenetan). Dena den, faktore sozialak baloratzea garrantzitsua den edozein prozeduratan egon gaitezke, bai jurisdikzio zibilean, bai penalean, bai sozialean.

Familia Zuzenbideari dagokionean, peritu sozial gisa honako hauetan egongo gara bereziki:

Ezkontza-prozedurak eta adingabekoen prozedurak

Kasu horietan, besteak beste, zaintza eta bisita-erregimena aztertuko ditugu. Zaintzari dagokionez, gurasoen egokitasuna ebaluatu beharko genuke eta adingabekoen interesekin gehien bat datorren zaintza-mota; zaintza hori pertsona bakarrekoa edo partekatua izan daiteke. Bisita-erregimenari dagokionean, berriz, bisita horiek egiteko denbora, modua eta lekua proposatu beharko genituzke.

Ezkontza-arloan, elizako ebazpen edo erabakien eraginkortasun zibila aitortzeko prozedurak

Kasu horietan, beharrezkoa izan daiteke, baldin eta izanez gero, seme-alaba adingabeei buruzko neurriak hartu edo aldatu behar izatea; beraz, agintaritza judizialak horren inguruko peritu-irizpena eska dezake.

Neurriak aldatzeko prozedurak

Egoera hori gertatzen da horiek ezartzeko sortutako inguruabarrak aldatzen direnean eta aldatzea beharrezkoa denean. Kasu horretan ere, zaintza eta bisiten erregimena baloratu beharko genituzke, oro har.

Adingabeak babesteko administrazio-ebazpenei aurka egiteko prozedurak eta adopzioan baiesteko beharra zehazteko prozedurak

Lehenengo kasuan, aditu sozial gisa balorazioa egiterakoan, administrazioak babesgabetasun-egoera hori aitortzeko gerta ahal izan diren inguruabarrak ebaluatu beharko ditugu. Adopzioan baiespena behar izateari dagokionean, eskaera aurkeztu duten pertsonen egokitasunaren balorazio-irizpideak betetzen dituzten kontuan hartuko genuke.

Desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko neurriak emateari buruzko prozedura judizialetan, peritu sozial gisa, pertsonaren eremuak (pertsonala eta ondarezkoa) ebaluatuko genituzke, beharrezko laguntzak ezarri ahal izateko, eta laguntzeko neurria edo neurriak eta, hala badagokio, neurri horiek ematen dituen pertsona ere bai.

Genero-indarkeriaren kasuak epaitzen diren prozeduretan, perituaren xedea izan daiteke, besteak beste, kalte soziala baloratzea emakumeak jasandako indarkeriaren kausa moduan; baliabideen proposamena; edo adingabekoei buruzko neurriak baloratzea, zaintzari eta bisita-erregimenari dagokienean.

Trafiko-istripu, laneko istripu eta zabarkeria medikoen bidezko kalte-galerak epaitzen diren prozeduretan, peritu-irizpen sozialak baloratuko du, beste peritu-xede batzuen artean, biktimak eta, kasu batzuetan, haren senitartekoek jasandako bizi-kalitatearen galera, gertaera kaltegarriaren bidez izandako lesioen eta/edo sekuelen ondorioz.

Etxebizitza-arloko prozeduretan (adibidez, etxegabetzeetan eta hipoteka-betearazpenetan), kaltetutakoen zaurgarritasun-egoerak aztertuko ditugu, legeak ezarritako irizpideen arabera.

4.7. Gauza bera al da peritu edo lekuko peritu izatea?

Ez, bi figura juridiko desberdin dira, eta, biak PZLn froga-bideak zehazten diren Kapituluan araututa badaude ere, perituaren figura perituen irizpenari buruzko 5. Atalean kokatzen da (335.1 art.) eta lekuko perituaren figura, berriz, lekukoa izanik, lekukoen galdeketari buruzko 7. Atalean aurkituko dugu (370.4 art.).

Legearen kokapenaren aldetik dagoen alde horretaz gain, beste hauek aipa ditzakegu:

PERITUA

Perituari prozedurarako deia egiten zaio, epaileak edo alderdi batek izendatuta, ezagutza espezializatuak behar badira. Ez du alde zuzenik inolako harremanik izango alderdiekin, eta ez ditu ezagutuko gertaerak. Berak egindako ekarpena peritu bidezko frogatzat hartuko da, eta ordezkatu ahal izango da.

TESTIGU-PERITUA

Lekuko-perituari dei egingo zaio gertaerak ikusi dituelako eta ezagutza espezializatuak eman ditzakeelako. Beraz, aurretik harreman zuzena eta prozesuz kanpokoa izango du gertaera horiekin. Haren ekarpenak lekukoen frogari ematen zaion balio bera izango du, eta ezingo da ordezkatu.

4.8. Peritu bezala lan egin al dezakegu lanbidearen jardun librean, Administrazio Publikoan lan egiten badugu?

Horri dagokionez, Administrazio Publikoen Zerbitzupeko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean ezarritakoa bete behar dugu. Horren arabera, Administrazio Publikoarentzat lanean ari garen bakoitzean eta edozein jarduera pribatu egin nahi dugunean (peritu-praktika barne), egiten dugun jarduera publikoa atxikita dagoen Administrazioko organo eskudunari bateragarritasuna eskatu behar diogu; era horretan, bateragarritasun hori eskatu eta baimenduta eduki behar dugu bigarren jarduera hasi baino lehen.

Gai horren erregulazioa Legearen 1.3, 11, 12.1.a eta 14. artikuluetan nahiz apirilaren 30eko 598/1985 Errege Dekretuaren 8. artikuluan eta hurrengoetan aurki dezakegu. Errege Dekretu hori Estatuko Administrazioaren, Gizarte Segurantzaren eta mendeko Ente, Erakunde eta Enpresen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzkoa da.

1.3. artikulua:

Nolanahi ere, Lege honen aplikazio-eremuko langileek lanpostu bat betetzea bateraezina izango da edozein kargu, lanbide edo jarduera publiko edo pribatuarekin, baldin eta horrek beren betebeharrak zorrotz betetzea eragotzi edo kaltetu badezake, edo inpartzialtasuna edo independentzia arriskuan jar badezake.

11. artikulua:

Lege honetako 1. artikuluan (3) xedatutakoaren arabera, Lege honen aplikazio-eremuan dauden langileek ezin izango dute beren kabuz edo ordezkapen bidez jarduera pribaturik egin, izaera profesionalekoak barne, beren kontura edo Erakundeen edo partikularren menpe edo zerbitzura, baldin eta zuzenean lotuta badaude bera destinatuta dagoen Sailak, Erakundeak edo Entitateak garatzen dituenekin.

12.1. artikulua:

Nolanahi ere, Lege honen aplikazio-eremuan aurkitzen diren langileek ezin izango dituzte ondorengo jarduerak egin:

a) Jarduera pribatuak, izaera profesionalekoak barne, beren kontura edo Erakundeen edo partikularren menpe edo zerbitzura, esku hartzen ari den gaitan, azken bi urteetan esku hartu badu edo lanpostu publikoa dela-eta esku hartu behar badu.

Bateraezintasun horretan sartzen dira, bereziki, lanpostu publikoa betetzean, artatu beharreko pertsonei emandako jarduera profesionalak.

14. artikulua:


Jarduera profesionalak, lanekoak, merkataritzakoak edo industriakoak Administrazio Publikoetatik kanpo egiteko, bateragarritasuna aitortu beharko da aldez aurretik.

Eta, azkenik, Errege Dekretuaren 8. artikuluan, ondorengo eskatzen da:

Bateragarritasunaren aitortzea lortzea ezinbesteko baldintza izango da Errege Dekretu honen aplikazio-eremuko langileek 53/1984 Legearen IV. Kapituluaren aipatzen diren jarduera pribatuak egiten hasi ahal izateko.

Bateraezintasunei buruzko betebeharrak ez betezea hutsegite oso larritzat jotzen da, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 95 n) artikuluan araututakoaren arabera.

Kontuan hartu gako-hitz hauek



Zientifikotasuna

Ezagutza
espezializatuak

Agintaritza
judiziala
ilustratzea

Aditua den
pertsona

Objektibotasuna

Inpartzialtasuna

5. PERITU-IRIZPENA

5.1. Zer da peritu-irizpena?

Espainiako Errege Akademiaren Hiztegiaren (2014) arabera, peritu-irizpen bat honako hau da:

Gai baten inguruan adituek egindako txostena da, gai horretarako ezagutza zientifikoak, artistikoak, teknikoak edo praktikoak behar direnean, auziaren xedeko gertakari garrantzitsuak azaltzeko eta baloratzeko.

Peritu-irizpena da auzitegi-ikerketa baten emaitza, izaera zientifikoa duena. Peritu batek egiten du eskatutako peritu-xederako, eta, bertan, gaiari buruzko iritzi teknikoa eta aditua jasotzen ditu.

Dakigun moduan, dokumentu hori froga-bide prozesaltzat hartzen da, eta, agintaritza judizialak libreki baloratu behar badu ere, kalitatearen arabera, froga oso garrantzitsua izatera iritsi daiteke prozedura judizialaren barruan, ebatzi behar den gertakaria edo gaia baloratzeko egiten duen ekarpenarengatik.

5.2. Zein da horren helburua?

Peritu-irizpenaren helburua da agintaritza judizialari ezagutza espezifiko batzuk ematea, juridikoez bestelako ezagutzak, irizpen horren xedeko gertakari edo gai batzuen inguruan.

Prozedura-froga horretan oinarrituta, agintaritza judizialak balorazio egokia egin ahal izango du gai horiei dagokienez, ezagutza espezializaturik gabe nekez emango bailuke iritzia eta, zenbait kasutan, nekez ebatziko bailituzkete. Azken batean, irizpenaren egiteko nagusia da agintaritza judiziala ilustratzea, haren uste osoa eraginez.

5.3. Zer esan nahi du peritu-irizpena froga ez-loteslea izateak?

PZLren 348. artikuluari jarraiki, peritu-irizpena kritika zintzoaren arauen arabera baloratuko da; alegia, agintaritza judizialak libreki balioetsiko du. Hain zuzen ere, froga hori prozeduran egoteak ez du esan nahi agintaritza judizialak horren arabera ebatzi behar duenik, erabakiak behar bezala oinarrituta egon behar badu ere.

Hala ere, loteslea ez izateak ez du esan nahi froga oso garrantzitsua izan ez daitekeenik, froga horrek epailearen uste sendoa eragiteko behar adinako kalitatea baldin badu; hau da, peritu-irizpenaren kalitateak frogatzeko indarra ematen dio, eta, horren arabera, balio handiagoa edo txikiagoa izan dezake agintaritza judizialarentzat.

5.4. Eta froga ez-loteslea bada, zein alderdi hartzen ditu kontuan auzitegiak hura baloratzeko?

Jurisprudenzian oinarrituta, organo judizialak, besteak beste, honako parametro hauek hartzen ditu kontuan peritu-irizpena baloratzekoan:

Lanbide-kualifikazioa

Kualifikazio horri dagokionez, agintaritza judizialak kontuan izango du baldin eta perituak ebaluatu behar izan duen peritu-objektuaren ingurukoa badu. Kasu horretan, prozedura profesional batek baino gehiagok parte hartzen badute, bata edo bestea aukeratu ahal izango du, kualifikazio horren arabera.

Ebaluatzeko erabilitako metodoa

Burututako metodologiari erreparatuta, metodologiak ebaluazioari berari nahiz emaitzei eusteko bezain sendoa eta fidagarria izan behar du, eskatutako peritu-xedeari erantzun ahal izateko informazio guztia eskuratzeko aukera ematearekin batera. Hori garrantzitsua da irizpena fidagarria izan dadin, eta baliozkotze zientifiko bera izan behar du. Hori dela-eta, oso garrantzitsua da prozesu metodologiko hori argi eta garbi zehaztuta geratzea adituen irizpenean.

Peritu-irizpenaren zientzia-arrazoia

Horri dagokionean, Auzitegi Gorenak 1998ko otsailaren 28an emandako Epaiak honela baieztatzen du: "... eta irizpenen froga-indarra dago, (...) oinarri gehiago edo gutxiago eta zientzia-arrazoia izatean".

Irizpenaren edukiaren eta peritu-xedeari arteko korrespondentzia

Garrantzitsua da peritu-irizpenaren edukia, idazketa, argudiatzeak eta oinarriak eskatutako peritu-xedera egokitzea eta xede horri erantzutea nahiz ondorioak justifikatzea.

Perituak ateratzen dituen ondorioak

Ondorio horiek irizpenean adierazitako argudioen eta oinarrien emaitza izan behar dute. Era berean, horiek argiak eta irmoak izateak fidagarritasuna ematen diote.

Perituak ahozko ikustaldian esku hartzea

Esku-hartze horri dagokionean, egindako galderen inguruan erantzun argiak, zehatzak, seguruak eta koherenteak izatea eta horiek arrazoitzea da organo judizialak peritu-irizpena baloratzerakoan kontuan hartzen duen beste faktore bat.

5.5. Zer baldintza bete behar ditu peritu-irizpen batek?

Kontuan hartzen badugu peritu-irizpena aditu batek burututako ikerketa zientifikoaren emaitza dela eta horren helburua epailearen uste osoa eragitea dela, horretarako baldintza batzuk bete behar ditu.

Zientifikotasuna

Peritu-irizpen bati eska dakioken lehen baldintza da zientzia-izaera izatea, dakigun moduan, agintaritza judizialak irizpena baloratzerakoan kontuan izaten duen alderdietako bat baita. Era horretan, peritua Zientziaren eta Zuzenbidearen artean kokatzen da, eta irizpenak, salbuespenik gabe, irizpide zientifikoetan oinarrituta egon behar du, edozein ondorio ateratzeko eta proposamenak egiteko.

Oinarriak

Peritu-irizpenak oinarri batzuk izan behar ditu edukiaren eta arrazoibideen aldetik, eskatutako peritu-xedeari erantzutearren. Oinarri horiei esker, ondorio objektiboak eskuratu ahal izango ditugu.

Koherentzia

Peritu-irizpenak koherentea izan behar du frogatu beharreko gertakarien eta emandako informazioaren artean, eskatutako peritu-xedeari zehatz-mehatz erantzun behar baitio. Halaber, erabilitako metodologiaren, idazketaren eta ateratako ondorioen arteko lotura izan behar du.

Metodologia zientifikoa

Irizpenak zientzia-izaera duenez, erabilitako prozesu metodologikoak, teknikak eta tresnek zorrotasun zientifikoko ikerketa egiteko aukera eman behar dute.

Zorrotasuna eta argitasuna

Peritu-irizpenak behar bezala idatzita egon behar du; argitasuna behar du edukiari nahiz idazketari dagokienean; idazkera profesionala; zehaztasuna erabilitako terminoetan, gertakarien lotura eta azalpenean eta erabilitako adierazpenetan. Hori guztia agintaritza judizialak bere osotasunean ulertu ahal izan dezan.

Ondorio argiak eta justifikatuak irizpenean zehar

Ondorio guztiek aldeztu aurretik justifikatuta eta argudiatuta egon behar dute irizpenaren edukian.

Laburbilduz, peritu-irizpenak nahikoa kalitate eta berme izan behar du zorrotasunaren eta objektibotasunaren aldetik, epailearen uste sendoa eragin dezan. Ezin dugu ahaztu hitzaren zentzu zabalean aditua den pertsona batek egindako dokumentu bat espero duela agintaritza judizialak.


5.6. Gauza bera al dira peritu-irizpen sozial bat eta txosten sozial bat?

Ez. Peritu-irizpen sozial bat txosten sozialean oinarritzen dela jakin badakigu ere, irizpenak jardun behar den testuingurura egokitu behar du; hots, juridikora, jurisdikzio-ordenara nahiz ebaluatu beharreko peritu-xedera. Egokitzapen eta eraldaketa hori beharrezkoa da, zeren “... horren betearazpena ohiko txosten sozialarekiko desberdina da edukien eta helburuen aldetik” (Reyes, 2014, 127. or.).

Bi tresnen arteko desberdintasun nagusia funtzioan dago: esku-hartzailea da txosten sozialean eta ebaluatzailea peritu-irizpenean. Bigarren aldea, berriz, helburuan dago. Txosten sozialak hainbat helburu izan ditzake: segimendua, deribazioa, esku-hartzea, eta abar; peritu-irizpenak, aldiz, helburu bat du, argia eta ongi definitua: agintaritza judizialari argibideak ematea gertakari edo gai baten inguruan, hori ebatzi ahal izateko ezagutza espezifikoak behar izateagatik eta berak ez izateagatik. Eta, azkenik, aldea dago bata eta bestea egiten dituzten profesionalei dagokienean. Txosten soziala Gizarte Langintzako profesionalek egiten dute eta peritu-txostena profesional horiek, baina peritu gisa.



Kontuan hartu gako-hitz hauek



Ikerketa
forentsea

Lanbide-
kualifikazioa

Epailearen
uste osoa

Iritzi teknikoa
eta aditua

Zientzia-
arrazoia

Ez-loteslea

6. PERITUEN MODALITATEAK

PZLn perituak hautatzeko sistema bikoitza aurreikusten da: judizialki izendatutakoak eta alderdi gisa izendatutakoak daude. Esan behar da modalitate horiek ez direla bateraezinak. Horren inguruan, honako hau ezartzen du 335.1 artikulua:

Gai baten inguruan garrantzitsuak diren gertakariak edo inguruabarrak baloratzeko edo horien gainean ziurtasuna lortzeko ezagutza zientifikoak, artistikoak edo praktikoak beharrezkoak direnean, alderdiek prozesuan aurkeztu ahal izango dute dagozkien ezagutzak dituzten perituen irizpena, edo, Lege honetan aurreikusitako kasuetan, Auzitegiak izendatutako perituak irizpena emateko eskatu ahal izango dute.

Era berean, izendatzeko hirugarren modu bat ere aipatu behar da; hots, ofiziozko peritua. Aukera hori 339.5 artikuluan arautzen da:

Auzitegiak peritua ofizioz izendatu ahal izango du peritu-lana egokia denean seme-alabatasuna, aitatasuna eta amatasuna adierazteari edo aurkaratzeari buruzko prozesuetan, pertsonen gaitasunari buruzkoetan edo ezkontza-prozesuetan.

6.1. Peritu judiziala

Peritu judiziala da, alderdiak edo alderdiek eskatuta, komenigarritasun-adierazpena egin ondoren, judizialki izendatzen dena. Horri dagokionean, Talde Tekniko Judizial batean dagoen profesional gisa jardun dezakegu edota gure Elkargo Profesionalek urtero Epaitegietara bidaltzen duten zerrendaren bidez izendatuta, nahiz eta atal honetan izendatutako profesionalak bakarrik aipatuko ditugun, elkargo-zerrenda horietan sartuta egoteagatik.

6.1.1. Nola lor dezakegu peritu judizial bat izatea?

Peritua judizialki izendatzeko prozedura PZLren 341.1 artikuluan ezartzen da:

Urtero, urtarrilean, Elkargo profesionalak eskatuko zaie (...) peritu gisa lan egiteko prest dauden elkargokideen edo elkartekideen zerrenda bidaltzeko. Zerrenda bakoitzeko lehen izendapenerako, zozketa egingo da Justizia Administrazioako letraduaren aurrean, eta, hortik aurrera, ondorengo izendapenak egingo dira hurrenkera korrelatiboan.

Urtero, oro har, abenduan, gure Elkargo Profesionalek deialdi bat egiten dute interesatuta dauden elkargokideek zerrenda horretan izena emateko, eta, ondoren, zerrenda Epaitegietara bidaltzen da, izendapen judiziala egin ahal izan dezaten.

6.1.2. Kargua onartzeko betebeharra al dugu judizialki izendatzen gaituztenean?

Bai; izan ere, zerrenda horietan norberaren borondatez sartzen da, eta, beraz, ez da onartzen izendapena askatasunez ez onartzea. Horren aurrean, eta uko egin ahal izateko, bi egoera gertatu behar dira. Lehenengoa da abstenitzeko legeko arrazoiren bat izatea (PZLren 105. art.) eta bigarrena kargu hori onartzea eragozten digun bidezko edo ezinbesteko arrazoiren bat izatea; arrazoi hori Justizia Administrazioako letraduak nahikotzat jo beharko du. Gai horren inguruan honako hau esaten da PZLren 342.2 artikuluan:

Izendatutako perituak onartzea eragozten dion bidezko arrazoiren bat alegatzen badu, eta Justizia Administrazioako letraduak nahikotzat jotzen badu, zerrendako hurrengoak ordezkatzeko du, eta, horrela, hurrenez hurren, harik eta izendapena egin ahal izan arte.

Ondorioz, bi egoera horiek (abstentzioa eta onartutako kausa zuzena) gertatzen ez badira, izendapen hori onartu beharrean aurkituko gara.

Abstenitzeko arrazoiei dagokienean, gogoratu ezin dugula alegatu legez ezarritakoez bestelako kausarik.

6.1.3. Elkargoko zerrendatan sar al gaitzke peritazioei buruzko prestakuntzarik izan gabe?

Sar gaitzke, baina ez genuke sartu behar. Jakin badakigu peritu baten funtzioa, aditua den aldetik, organo judiziala ilustratzea dela, gai bati buruzko ezagutza espezifikoak emateko, gai hori ebatzi ahal izan dezan. Hain zuzen ere, prozedura judizialera deitzen gaituzte agintaritzak judizialak ez dituen ezagutza espezializatu horiek emateko. Hori dela-eta, peritu gisa ezagutza horiek izatea baldintza nagusia da, eta ez baditugu, galdera hauek egin beharko genizkioke geure buruari: zer funtzio prozesal beteko dugu?; zer-nolako ezagutzak emango ditugu?; eta, beraz, zer irizpen egingo dugu? Hortaz, zer zentzu eta onura du gu prozeduran egoteak?

Garrantzitsua da jakitea, oro har, zerrenda horiek orokorrak izaten direla; alegia, ez dute zehazten zer irizpen-motatarako deituko diguten (Familia-zuzenbidea, genero-indarkeria, trafiko-istripuak, edo beste edozein); beraz, arrazoi hori nahikoa da espezializazioa izateko, bertan sartzeari erabakitzen badugu.

Oso kontuan izan beharrekoak dira, baita ere, izan ditzakegun erantzukizunak, eta horietako bat da eska diezaguketen erantzukizun zibila, alderdiei kaltea eragin diezaiekeen praxi txar baten ondorioz.

Azkenik, garrantzitsua eta beharrezkoa litzateke galdera hau ere geure buruari egitea: zerk eraman gaitzake zerrenda horretan sartzea, prestakuntza eta/edo esperientzia txikienik ere izan gabe, eska diezazkiguketen eta, gehienetan duten konplexutasunaren ondorioz, ebaluatu ahal izateko ezagutza espezializatu batzuk behar dituzten eskaera judizial ezberdinei erantzun behar badiegu? Eta are gehiago, gerta baitaiteke ezagutzen ez dugun kasu bat baloratzeko izendatzea eta perituz irizpena egin behar izatea, izendapenari uko egin ezin diogulako, horretarako Justizia Administrazioako letraduak onartuko duen legezko kausarik edo ezinbesteko kausarik ez izateagatik. Egoera hori benetan korapilatsua da.

Horri dagokionez, Justizia Administrazioak prestakuntza espezializatu hori eskatzen ez badu ere eta Elkargo bakoitzak bere baldintzak ezartzen baditu ere, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargoek prestakuntza espezializatua eskatzen dute Epaitegietara urtero bidaliko dizuten zerrendetan sartu ahal izateko.

6.1.4. Judizialki izendatzen bagaituzte, zer-nolako urratsak jarraitu behar ditugu?

URRATSA 1

Izendapena

Behin izendapena eginda, Justizia Administrazioako letradua gurekin harremanetan jarriko da hori jakinarazteko. Hortik aurrera, bi egun izango ditugu Epaitegira joan eta kargua onartzeko, 342.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Izendapenaren egun berean edo hurrengo egun balioudunean, Justizia Administrazioako letraduak horren berri emango dio peritu titularri, eta bi eguneko epean kargua onartzen duen adierazteko eskatuko dio.

Praktikan, COVID-19aren pandemiak eragindako konfinamenduaz geroztik, Epaitegi batzuetan kargua telematikoki onar dezakegu (posta elektronikoa), bertan elektronikoki sinatutako agerraldia erantsita. Behin onartuta, dokumentazioa ere posta elektronikoz bidaltzen digute, enkarguari buruzko irizpidea osa dezagun eta berriro ager gaitezen funts-hornidura eskatzeko.

Agerraldi telematikorako baimenik ematen ez badigute, zuzenean joan beharko dugu Epaitegira, jarraian adieraziko den moduan.

URRATSA 2

Epaitegira joatea

Epaitegira joandakoan eta kargua onartu aurretik, garrantzitsua da kasuaren espediente judiziala kontsultatu ahal izatea, prozeduran parte hartzen duten alderdiak nortzuk diren jakiteko eta izendapena alde batera uztera bultzatzen gaituen legezko abstentzio-arrazoirik ez dagoela egiaztatzeko. Kausarik ez baldin badago, gure izendapena egingo da, eta PZLren 335. artikuluko 2. atalean agindutako zinpeko adierazpena edo promesa gauzatuko dugu xedatutako moduan.

Irizpena ematean, peritu guztiek adierazi beharko dute, egia esateko zin edo promesa eginda, ahalik eta objektibotasun handienarekin jardun dutela eta, hala badagokio, jardungo dutela, kontuan hartuta edozein alderdiri mesede egin edo kaltea eragin diezaiokeena; halaber, peritu gisa duen betebeharra betetzen ez badute, ezar litzaizkiekeen zehapen penalak ezagutzen dituztela adieraziko dute.

URRATSA 3

Peritu-xedea eta irizpena egiteko denbora ezagutzea

Gai horiek oso garrantzitsuak dira, eta horien gainean ezin dugu zalantzarik izan behar. Peritu-xedea ezagutzea, batzuetan konplexua dena, oso garrantzitsua da, gure irizpenak zehatz-mehatz erantzun behar baitio epailearen eskaera horri; bestela, irizpenak bere funtzio prozesala betetzeari utziko dio. Hortaz, Epaitegitik irtetea ondo baino hobeto jakin behar dugu zein den ebaluatzea eskatzen diguten peritu-xedea.

Irizpena egiteko denborari dagokionean, zehatz-mehatz jakin behar dugu; izan ere, PZLren 346. artikuluan adierazten den moduan, irizpena adierazitako epearen barruan entregatu beharko dugu, baldintza hori zehatz betetzearekin batera.

URRATSA 4

Aurrekontua aurkeztea eta funtsen hornidura eskatzea

Aurrekontua aurkeztu eta, izendapena egin eta hurrengo hiru egunetan, funtsen hornidura eskatuko dugu (peritu-irizpena egiteagatik jaso beharreko ordainsari guztien zati bat aurreratzea), PZLren 342.3 artikuluan zehaztutako moduan.

Izendatutako perituak, izendatu eta hurrengo hiru egunetan, eta etorkizuneko fakturaren aurrekontua aurkeztuta, beharrezkotzat jotzen duen funts-hornidura eskatu ahal izango du, eta hori azken likidazioaren kontura izango da.

Aurrekontuari eta funts-horniduraren eskaerari dagokienean, kontuan izan behar dugu alderdietako batek balitekeela doako laguntza juridikorako eskubiderik ez izatea; bestela, Doako Laguntza Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen martxoaren 9ko 141/2021 Errege Dekretuaren 51. eta 52. artikuluetan nahiz gure Autonomia Erkidegoko legerian horren gainean ezarritakoa bete beharko ditugu, betiere horrek Justiziaren arloko eskumenak transferituta baditu. Hori gertatzen da doako peritu-laguntza eskubide horren barruan ere dagoelako. Orobat, kontuan izan behar dugu irizpen hori agintaritza judizialak ofizioz eskatu ez izana.

Adibide gisa, honako dekretu hauek aipa ditzakegu: batetik, 153/2018 Dekretua, urriaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa; 50. eta 51. artikuluetan doako peritu-laguntza arautzen da. <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2018/11/1805444a.pdf>

Bestetik, 104/2021 Foru Dekretua daukagu, abenduaren 1ekoa, Nafarroako Foru Komunitateari aplika dakiokeen Doako Laguntza Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena, 45. artikulutik 52. artikulura bitarte, laguntza hori arautzen baita. <https://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=54421>

URRATSA 5

Peritu-irizpenaren eskaera egin eta doako laguntza juridikorako eskubiderik ez duen alderdiak edo ez duten alderdiek funtsen hornidura ordaintzea

Izapide horri dagokionean, PZLren 342.3 artikuluan honako hau zehazten da:

Justizia Administrazioiko letraduak, dekretu bidez, eskatutako horniduraren gaineko erabakia hartuko du, eta peritu-froga proposatutako eta doako laguntza juridikorako eskubiderik ez duen alderdiari edo ez duten alderdiei aginduko die Auzitegiko Gordailu eta Kontsignazioen Kontuan finkatutako zenbatekoa bost eguneko epean ordaintzeko.

URRATSA 6

Irizpena adierazitako epearen barruan entregatzea

Gaur egun, PZLn “zero papera” izateko helburua gauzatu zenetik, Justiziako profesional guztiek telematikoki aurkeztu behar dituzte Auzitegiari zuzendutako idazkiak eta dokumentuak. Betebehar hori dute, baita ere, perituek, txostenak eta irizpenak bide telematikoz aurkez baititzakete (IKUS <https://sedejudicial.justicia.es/-/dictamen-pericial>). Hala ere, egun, posta elektronikoz aurkezten jarraitzen da (peritu judizialen kasuan). Alderdi-perituei dagokienean, baliteke nahikoa izatea artxibo digitala bezeroari entregatzea, eta haren legezko ordezkariak Epaitegira bidaliko du Lexnet plataformaren bidez. Beste batzuetan, alderdi-perituak arrazoiren bat dela-eta egoitza judizialera joan behar izan duenean, litekeena da irizpena zuzenean Epaitegian aurkeztu behar izatea, baina horrek ez du eragozten bezeroari ere modu pribatuan helaraztea. Jakina, dokumentu horiek elektronikoki sinatuta egon behar dute.

URRATSA 7

Faktura aurkeztea

Faktura aurkezteari dagokionean, PZLren 342.3 artikuluaaren amaieran ezarritako moduan, ez dugu prozedura amaitu arte itxaron behar

Peritu-frogaren praktika amaituta, perituak bere zerbitzu-sarien faktura edo minuta aurkeztuko du, eta aurreikusitako izapidea emango zaio, gehiegizko ordainsarien bidezko kostuen tasazioen aurkaratzei dagokienez, eta ebazpena irmoa bada, ordaindu egingo da.

Alegia, gure peritu-jarduera amaitu ondoren, eta epaiketa amaitzeko eta kostuen tasazioa egiteko zain egon behar izan gabe, Epaitegiari gure faktura aurkez diezaiokegu, PZLren 241,2 artikuluan adierazten den moduan.

Jarduera prozesaleatik eratorritako kredituen titularrek horiek ordaindu behar dituen alderdiari edo dituzten alderdiei erreklamatu ahal izango dizkie edo dizkiete, prozesua amaitu arte itxaron behar izan gabe eta kostuen gaineko balizko erabakia kontuan izan gabe.

Gure ordainsariei dagokienez, jakin behar dugu horiek inpugnatu egin daitezkeela neurritz kanpokatze jotzen badituzte. PZLren 245.2 artikulua kostuen tasazioari buruzkoa da, eta perituen ordainsariak inpugnatu daitezkeela adierazten du, gehiegizkoak izanez gero. Aurkaratze hori gertatzen bada, eta Elkargo Profesionaleen Legearen 5. artikularen arabera, prozeduran ordainsari horiek eztabaidatzen badira, Elkargoek horren inguruko txostena egin beharko dute.

6.1.5. Zer-nolako ondorioak ditu alderdiak edo alderdiek eskatutako funts-hornidura ezarritako epean ez ordaintzeak?

PZLren 342.3 artikularen arabera, epe hori (bost egun) igaro eta ezarritako zenbatekoa ordaindu ez bada, perituak ez du irizpena eman beharrik izango, eta ezin izango da beste izendapenik egin.

Horren aurrean, adi egon behar dugu eta Epaitegiari galdetu, epe hori igaro ondoren, ordainketa egin den; bestela, ez baitugu irizpena egin beharrik izango.

6.1.6. Peritu-eragiketetan alderdiak presente egon al daitezke?

Bai, peritu-eragiketetan alderdiek izan ditzaketen esku-hartzei buruzko 345. artikuluan (PZL) jasotzen den moduan. Bertan, ondorengoa adierazten da:

Irizpena egiteko, tokiak, objektuak edo pertsonak ezagutzea edo antzeko eragiketak egitea eskatzen denean, alderdiek eta horien defendatzaileek bat eta beste batzuk ikus ahal izango dituzte, baldin eta horrekin perituaren lana eragozten edo oztopatzen ez bada eta irizpenaren egokitasuna eta inpartzialtasuna berma badaiteke.

Alderdiek presentzia hori eskatu eta Auzitegiak onartzen badu, peritu-jarduera horiek egingo diren eguna eta ordua baino berrogeita zortzi ordu lehenago jakinarazi behar zaie, lekua ere adieraztearekin batera.

6.1.7. Peritu-irizpena egin al dezakegu alderdietako batzuekin bitartekaritza-lana egin badugu?

Ez. PZLren 335.3 artikulua arabera, gai berarekin lotutako bitartekaritza edo arbitrajean parte hartu duen peritu bati ezin izango zaio irizpenik eskatu, alderirik kontrakorik erabaki ezean.

6.1.8. Prozeduran peritu batekin baino gehiagorekin egokitu al gaitzke?

Bai, alderdiek eskatutako izendapen judizialaren eta alderdiek peritu pribatua jartzearen artean bateraezintasunik ez dagoenez, alderdi bateko edo bietako perituak aurki baititzakegu; beraz, prozedura berean diziplina bereko hiru peritu ere egon gaitzke, gure kasuan, Gizarte Langintzako profesionalak.

Horri dagokionean, PZLren 347.1.5 artikuluan, kontrako alderdiko perituak irizpena kritikatu ahal izatea aurreikusten da. Zer esan nahi du horrek? Alegia, kontrako alderdiko perituak gure irizpenaren kritika egin dezakeela, edukiaren, erabilitako prozeduraren, ateratako ondorioen eta abarren aldetik.

6.1.9. Kargua onartzean eta /edo irizpena berresterakoan zer curriculum dugun galde al diezagukete?

Bai, batez ere prozedura berean peritu bat baino gehiago ari badira lanean; izan ere, epaileak izendatuta jarduten dugunean, alderdiek izendatutako lankideak aurki ditzakegu.

6.2. Alderdi-peritua

PZLren 335.1 artikuluan adierazten den moduan, Legean jasotzen den beste peritu-modalitate bat da alderdiek modu pribatuan izendatzen dutena.

... dagozkien ezagutzak dituzten perituen irizpena aurkeztu ahal izango dute alderdiek prozesuan.

6.2.1. Alderdi batek kontratatzen bagaitu, zer-nolako urratsak jarraitu behar ditugu?

URRATSA 1

Abokatuak edo bezeroak gure peritu-zerbitzuak eskatzea

Lehenik eta behin bezeroa jartzen bada gurekin harremanetan, gomendagarria da, harekin hitz egin ondoren, abokatuarekin zuzenean hitz egitea, peritu-lanaren xedea eta irizpena egiteko epea zehatz-mehatz ezagutu ditzagun, alderdi horiek ez baititu beti argi izaten kontratatzen gaituen pertsonak.

Behin azterketa-xedea ezagututa, enkargu profesional horri erantzun ahal izateko beharrezko ezagutzak baditugun baloratu behar dugu.

URRATSA 2

Kasua onartzea

Onartu eta gero, abokatuari espediente judiziala eskatuko diogu, eta horren bitartez ebaluatu behar dugun alderdia zein den jakingo dugu. Hori oso garrantzitsua da; izan ere, ziurtatu beharko dugu ez dagoela irizpena egiteari uko egitera eramango gaituen inolako legezko abstentzio-kausarik.

URRATSA 3

Aurrekontua aurkeztea

Kasu honetan, judizialki izendatzen gaituztenean ez bezala, ez dugu horretarako eperik, baina garrantzitsua da aurrekontu hori aurkezteko asko ez atzeratzea, onartu egin behar dute-eta.

URRATSA 4

Zerbitzuak emateko kontratua sinatzea

Behin aurrekontua onartuta, zerbitzuak emateko orria sinatu behar dugu; hau da, gure lanaren baldintza guztiak, aurrekontua barne, zehaztuko dituen kontratua. Hori sinatu ondoren, funtsen hornidura eskatuko dugu.

URRATSA 5

Irizpena egitea eta adierazitako epean entregatzea

URRATSA 6

Faktura aurkeztea eta kobratzea

6.2.2. Zer egin behar dugu alderdi-peritu gisa jardun nahi badugu?

Peritu-lanean modu pribatuan aritzeko, geuk eman behar dugu ezagutzera geure burua, eta, ondorioz, publizitatea geure kabuz egin behar dugu. Era horretan, aukera egokia litzateke Abokatuen Elkargoetan publizitatea kontratatzea, bai gure hirikoetan, bai beste batzuetakoetan. Era berean, gure burua ezagutzera eman dezakegu nolabait harremana dugun abokatuen bitartez.

Halaber, gure Elkargoetako batzuek herritarren eskura jartzen dituzten zerrendetan sar gaitzke. Zerrenda horiek beren kontura lan egiten duten eta hainbat zerbitzu eskaintzen dituzten profesionalek osatzen dituzte, eta zerbitzu horietako bat da peritu-irizpen sozialak egitea.

6.2.3. Elkargoaren zerrendan sar al gaitzke judizialki jarduteko eta, aldi berean, alderdi gisa jarduteko?

Bai. Bi jokabideak ez dira bateraezinak.

6.2.4. Narriatuak bagara eta narrioa egia ez bada, zer egin dezakegu?

Alderdiak izendatutako peritu gisa, narriopean jar gaitzke. Narrioarekin, agintaritza judizialaren aurrean agerian utzi nahi da inpartzialtasunik eza izan dezakegula, gure peritu-irizpena kontuan har ez dezan. Narriorekin PZLren 343.1 artikuluan jasotzen dira. Hona hemen:

1. Alderdi baten edo haren abokatu nahiz prokuradoreen ezkontidea edo senide izatea laugarren gradu zibilean, dela odol bidez, dela ezkontza bidez.
2. Auzian edo antzeko beste batean zuzeneko edo zeharkako interesa izatea.
3. Alderdietako batekin edo haren abokatu nahiz prokuradoreekin mendekotasun-egoeran edo komunitate-egoeran egotea edo egon izana edo interesen gatazka izatea.
4. Alderdietako batekin edo haren prokuradore nahiz abokatuekin adiskidetasun mina edo areriotasuna izatea.
5. Lanbide-kontzeptuan galera dakarten beste edozein inguruabar, behar bezala egiaztatuta.

Narria lanbide-arloan izena galtzeko arrazoitzat har daitekeenez, prozedura batean narriatuak izaten bagara eta horrek funtsik ez badu, Auzitegiari eska diezaiokegu prozesuaren amaieran adieraz dezala, probidentzia bidez, horrek ez duela funtsik, PZLren 344.1 artikuluan ezartzen den bezala.

6.2.5. Geure burua alderdi-peritu gisa ezagutzera eman al dezakegu edota horretan jardun peritu-azterketari buruzko prestakuntzarik izan gabe?



Epaileak izendatutako kasuan, galdera hori erantzutean emandako argudio bera dakarkigu orain ere. Perituaren eginkizuna da agintaritza judizialari argibideak ematea gertakari edo gai baten inguruan, hori ebatzi ahal izateko ezagutza espezifikoak behar izateagatik eta berak ez izateagatik, horiek gabe nekez ebatziko bailuke.

Alderdi gisa jardutean, abokatua da ezagutza espezializatu horiek ematea espero duena, peritu-xedea aztertze aldera, horretarako kontratatu baikaitu, eta hori guztia bere demandari eutsi eta/edo erantzun ahal izateko helburuarekin.

Beraz, honako galdera hau egin diezaiokegu geure buruari: zer zentzu du publizitatean inbertitzeak, horrela geure burua ezagutzera emateko horretarako gaitasunik eta ezagutzarik ez badugu? Epaileak izendatuta jarduten dugunean bezalaxe, oso garrantzitsua da gure lana kalitatezkoa izatea, eta hemen beste faktore bat gehitzen da; alegia, bezeroak irabaztea, eta horiek, aldi berean, gu beste batzuen aurrean gomendatzea. Hortaz, prestakuntzarik eta/edo esperientziarik ez izateagatik, peritu-lan zorrotza eta kalitatezkoa eskaintzeko moduan ez bagaude, zer eskainiko diegu gure bezeroei? Nolako irizpena egingo dugu? Eta, ondorioz, zenbat denboran ari gaitezke alderdi-peritu gisa lanean eskaintzen dugun zerbitzua kalitatezkoa ez bada?

Halaber, kontuan izan behar ditugu, dakigun moduan, izan ditzakegun erantzukizunak, alderdi-gisa jardutean salbuetsita ez ditugunak.

Kontuan hartu gako-hitz hauek



7. AHOZKO IKUSTALDIAN PERITUA EGOTEA. BERRESPENA

7.1. Zer da berrespena?

Berrespena, esan dezakegu, gure peritu-lanaren amaiera dela; era horretan, zitazioa jasoz gero, ahozko ikustaldira joan behar dugu alderdiek, Fiskaltzak (prozeduran baldin badago), Epaileak edo Auzitegiak egiten dizkiguten galdera guztiak erantzuteko.

PZLren 347. artikulua arabera, prozesu-une horretan, besteak beste, honako hauei buruzko galderak egin diezazkigukete: frogaren ondorioetarako, irizpenean nahikoa argi ikusten ez diren puntuak; erabilitako metodologiari buruzko alderdiak; atera ahal izan ditugun ondorioen gaineko azalpenak; egindako proposamenei buruzko argudioak; nahiz irizpena ulertzen eta baloratzen lagunduko duen edozein azalpen.

Era berean, kontrako alderdiko perituak irizpenaren gainean kritika egitea eska daiteke.

7.2. Nahitaezkoa al da berrestera joatea?

Bai, zitatzen gaituzten guztietan. Kasu horretan, alderdien eta lekukoen galdeketaren ondoren hartuko dugu parte ahozko ikustaldian; hori dela-eta, ezingo gara Aretora sartu deitu arte. Identifikatzeko, gure NANA eskatuko digute.

7.3. Zer gerta daiteke berrestera joaten ez bagara?

Horri dagokionean, PZLren 292. artikuluan entzunaldira agertzea derrigorrezkoa dela esaten da; zehazki,

Zehaztutako epaiketa edo ikustaldian agertzeko beharra izango dute lekuko eta aditu zitatuak. Eginbehar hori hautsiz gero, Auzitegiak zigorra jarriko du, ehun eta laurogei eurotik sei ehun eurora bitarteko isuna, bost egunetan entzunaldia egin ondoren.

Aurreko paragrafoko isuna ezartzean, Auzitegiak, probidentzia bidez, eskaera egingo dio isuna jaso duenari Justizia Administrazioako letratuak berriro zitazioa egiten dionean ager dadin, eta agintaritzari desobeditzeagatik beraren aurka jardungo dela ohartaraziko dio.

7.4. Zer gerta daiteke hitzordua jarri diguten egunean ezin bagara joan ezinbesteko arrazoiengatik? Eta egun berean beste seinalamendu judizial bat badugu?

Berrestera joateko zitatutako egunean ezinbesteko arrazoiak medio bertara joatea ezinezkoa bazaigu, PZLren 183. artikuluan ondorengo zehazten da:

Ikustaldira joan behar dutenetatik edozeini ezinezkoa bazaio zehaztutako egunean bertara joatea, ezinbesteko kausa edo antzeko garrantzia duen beste arrazoiaren batengatik (hala nola, jaiotza eta adingabea zaintzea, gaixotasun larria eta istripua ospitaleratzearekin, ezkontidea edo ezkontzaren antzeko harremana duen pertsona hiltzea, odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailarainoko ahaideen heriotza edo Gizarte Segurantzak edo osasun-sistemak edo gizarte-aurreikuspeneko sistema baliokideak ziurtatutako lan-baja), hori berehala adieraziko dio Auzitegiari, arrazoia edo zioa behar bezala egiaztatuta, eta ikustaldirako beste data bat zehaztea edo egoera hori aintzat hartzen duen ebazpena ematea eskatuko du.

Auzitegiak ikustaldirako zitatutako lekukoak nahiz adituak adierazi eta egiaztatzen badu arau honen lehenengo paragrafoko ezintasun-egoera berean aurkitzen dela, orduan Justizia Administrazioako letratuak xedatuko du alderdiei hiru eguneko epe arruntean entzutea, ikustaldirako zehaztutako data ondoriorik gabe uzten den eta beste bat jartzen den jakiteko edo lekukoa nahiz peritua zitatzea frogatzeko jarduera adierazitako ikustaldiratik kanpo burutzeko. Epe hori igarota, Auzitegiak komenigarritzat jotzen duena erabakiko du, eta lekukoaren edo perituaren desenkusa aintzat hartzeko edo egiaztatzeko modukoa ez dela uste badu, ikustaldiaren seinalamendua bere horretan mantenduko du, eta Justizia Administrazioako letratuak horrela jakinaraziko die haiei, agertzeko eskatzearekin batera, 292. artikuluaaren bigarren paragrafoan aurreikusten denaren gaineko ohartarazpena eginda.

Bestalde, nahiko ohikoa da peritua edozein agerraldi judizialetera edo epaiketa-ekitaldian irizpena berrestera zitatua izatea eta egun horretan bertan beste zitazio bat izatea.

Kasu horretan, gure zitazioa jakinarazten zaigun unean, beste organo jurisdikzionaletan dugun aurreko zitazioa helarazi behar diogu Epaitegi edo Auzitegiari, ahozko ikustaldia bertan behera utzi dezan edo, egitekotan, beste egun batean pertsonalki dei gaitzaten izapidea betetzeko. Beraz, bistakoa da lehenik zitatzen gaituen ebazpen judizialak duela lehentasuna ondorengoaren aldean.

Kasu batzuetan, zehaztutako data bi Epaitegietan ordu berean ez denean, litekeena da ondorengo zitazioaren epaiketa-ekitaldia bertan behera ez uztea eta Auzitegi horretan telematikoki agertu ahal izatea.


Peritu judizialak garenean, organo judizialekiko komunikazio horiek pertsonalki izango ditugu. Baina alderdi-perituak bagara, gure bezeroaren abokatuari jakinarazi beharko diogu eta beste Epaitegi batean aurretik beste zitazio bat dugula egiaztatzen duen dokumentua helarazi, epaiketa-ekitaldia etetea eskatzeko idazki bat aurkez dezan, perituak egun horretan agertzerik ez izateagatik, edo telematikoki agertzea eska dezan, ahal izanez gero.

7.5. Berrestera joan behar dugun hirian bizi ez bagara, ekintza hori bideokonferentziaz egitea eska dezakegu?

Bai. Horren inguruan, PZLren 346. artikuluan adierazitakoaren arabera, epaiketan edo ikustaldian esku hartu behar duen peritua Auzitegiaren demarkazio judizialetik kanpo bizi bada, deklarazioa batik bat bideokonferentzia bidez egingo da.

Egoera horretan egonez gero, idazki bat bidaliko dugu Epaitegira, berrespena bideokonferentziaz egitea eskatzeko, judizialki izendatutako kasuan, edo gure abokatuari jakinaraziko diogu, alderdi gisa kontratatu bagaituzte, hark eska dezan.

Kontuan hartu gako-hitz hauek



Ahozko
ikustaldia

Derrigortasuna

Peritu bat baino
gehiago
prezedura
berean aritzea

Peritu-lanaren
amaiera

Zitazio judiziala

Peritu-irizpena
defendatzea

8. PERITU-PRAKTIKA ETA MODU LIBREAN JARDUN

Peritu-lana egitean, bai epaileak izendatuta, bai alderdi batek izendatuta, lanbidearen jardun librean arituko gara, eta, beraz, jakin beharreko zerga-betebehar batzuk ditugu.

8.1. Alderdi tekniko fiskalak

8.1.1. Profesional autonomo gisa alta eman behar al dugu peritu gisa jardun behar badugu?

Galdera horri erantzuteko, Legeak pertsona autonomo gisa zer ulertzen duen definituko dugu. Langile Autonomoaren Estatutuari buruzko uztailaren 11ko 20/2007 Legearen 1. artikuluan autonomotzat hartzen diren pertsonak zehazten dira, eta ondorengo esaten da:

Lege hau pertsona fisikoei aplikatuko zaie; hots, irabazizko jarduera ekonomikoa edo profesionala modu pertsonalean, zuzenean, norbere kontura eta beste pertsona baten zuzendaritza- eta antolamendu-esparrutik kanpo egin ohi dutenei, besteren konturako langileei lana eman ala ez.

Era berean, pertsona autonomoa nor den definitzen du 2530/1970 Dekretuak, abuztuaren 20koak, norberaren konturako langileen edo langile autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezia arautzen duenak. 2. artikuluan honela ezartzen du:

Araubide berezi honen ondorioetarako, norberaren konturako langiletzat edo langile autonomotzat hartuko da irabazizko jarduera ekonomikoa modu pertsonalean eta zuzenean egin ohi duena, lan-kontraturik behar izan gabe eta beste pertsona batzuen zerbitzu ordaindua erabili arren.

Artikulu horiei dagokienez, ohikotasunaren baldintza nabarmendu behar dugu, jarduera norberaren kontura egiteari erreparatuta, pertsona modu autonomoan ari dela kontuan hartzeko. Hortaz, gure kasua hori bada, hots, norberaren konturako lanbide-jarduera eta ohikoa, jardueraren bidez sortutako diru-sarrerak alde batera utzita, egin dugun galderaren erantzuna baiezkoa da: pertsona autonomo gisa jarduteko alta eman behar dugu, eta zerga-ondorioetarako legezko eskakizun guztiak bete behar ditugu.

8.1.2. Non eman behar dugu alta?

Pertsona autonomo gisa jarduteko, izapide hauek egin behar ditugu:

LAABen alta ematea eta afiliatzea

Gizarte Segurantzako Langile Autonomoen Araubide Berezian alta ematea nahitaezko izapidea da irabazizko jarduera ekonomiko bat modu pertsonalean eta zuzenean egin ohi duen edozein pertsonarentzat. Horrela jasotzen da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean, eta honako hau adierazten du:

Langile autonomoak behartuta daude Gizarte Segurantzaren sisteman afiliatzeko eskatzera eta Norberaren Konturako Langileen edo Autonomoen Araubide Berezian dituzten altak, bajak eta datu-aldaketak jakinaraztera, Lege honetan eta lege honen aplikazio- eta garapen-xedapenetan ezarritako moduan, epeetan eta baldintzetan.

Alta hori dagokigun Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian egingo dugu, TA.0521 eredua aurkeztuz. Doako izapide hori pertsonalki egin dezakegu, aurrez aurre edo modu telematikoa.

Ogasunean alta ematea

Jarduera profesionalak edo enpresarialak garatzeko, jarduera hasteko zentsu-izaerako betebeharra da, eta LAABen alta eman zenetik 60 egun natural igaro baino lehen egin behar da. Bete beharreko eredua 036 da edo 037 bertsio sinplifikatua.

EJZn alta ematea

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga gure jarduera ekonomikoa identifikatzen duen kodea da, eta haren mende egongo da aurre egin behar diogun fiskalitate-eredua. Zerga hori ordaintzetik salbuetsita gauden arren, Ogasunean alta emateko orduan, nahitaez, 036/037 ereduan adierazi behar dugu gure jarduerari dagokion epigrafea.

8.1.3. Nola jakin dezakegu EJZren zein epigrafe adierazi behar dugun?

EJZren gure kodea bilatzeko, gure jarduera profesionala edo enpresariala izango den jakin behar dugu. Ohikoa da gure jarduera profesionala izatea, indibidualki garatzen dena izateagatik, gure baliabideekin bakarrik; hau da, gure lan pertsonala (kualifikazioa, lanbide-esperientzia eta ezagutzak). Hala bada, epigrafea 2. Atalean bilatu beharko genuke. Jarduera, ordea, lan-egitura baten arabera egin behar badugu (lantokia, kontratatutako pertsonak...), jarduera enpresariala izango litzateke, eta, kasu horretan, epigrafea 1. Atalean bilatu beharko dugu.

Garrantzitsua da egin beharreko jardueraren gaineko ñabardura hori, Ogasunean alta ematerakoan, eragina izango baitu zergak ordaintzeko moduari dagokionean (aplikatu beharreko BEZ mota, PFEZaren konturako atxikipena...).

Gerta daiteke egingo dugun jarduera zehatz-mehatz definituko duen epigrafe zehatz bat ez aurkitzea, eta, kasu horretan, epigrafe orokor bat hauta dezakegu.

8.1.4. Peritu-jarduera ohikoa ez bada, hots, noizean behin egiten badugu, nahitaezkoa al da pertsona autonomo moduan alta ematea?

LAABen alta emateari dagokionez, legezkoa da autonomo izan gabe fakturatzea, eta alta ez eman beharrik izateko diru-sarreraren muga urte naturaleko Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata izango da; beraz, ez dugu alta eman beharrik izango perituirizpenak noizean behin egiten baditugu eta kopuru hori baino diru-sarrera handiagoak sortzen ez badizkigu.

Hala ere, Gizarte Segurantzako alta eta Ogasuneko alta bereizi behar ditugu. Faktura egiteko, nahitaezkoa da Ogasunean alta ematea, ezingo baita fakturatu aurretiko izapide hori egin gabe. Ondorioz, Gizarte Segurantzaren alta eman behar ez izateak ez du esan nahi Ogasunean nahitaez egin behar ez dugunik, 036/037 ereduak beteta, EJZren epigrafea zehaztuz.

Hori esanda, Gizarte Segurantzaren alta eman gabe faktura egiteko aukerari dagokionean, zenbait kontu zehaztu behar ditugu. Lehenik eta behin, aukera hori ez dago arauz jasota, baina egia da horren inguruan Auzitegi Gorenak emandako jurisprudentzia dagoela; hots, 1997ko urriaren 29ko eta 2007ko martxoaren 20ko epaiak. Horien arabera, ohikotasunaren adierazlea litzateke Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren muga urtebetea gainditzea, baina hori jurisprudentzia da, ez arau-emailea. Gizarte Segurantzak ez du horri buruzko iritzirik ematen, eta uler daiteke autonomo gisa alta eman beharrik ez izateko LGSri buruzko irizpidea ez duela esplizituki onartzen; izan ere, indarrean den araudian ez da ezartzen Gizarte Segurantzaren kotizatu gabe norberaren konturako jarduera garatu ahal izateko gutxieneko edo gehieneko diru-sarrerarik.

Are gehiago, 2018ko ekainean, erakunde horrek alta emateko betebeharrari buruz hitz egin zuen, egindako jardueraren bidez lortutako diru-sarrerak alde batera utzita.

Peritu-irizpenak aldizka egin eta LGS ez gainditzean alta ez ematea erabakitzen badugu, kontuan izan behar dugu, ikuskapena eginez gero, isuna ordaindu beharra egokitu litzaigukeela LAABen autonomo gisa alta eman gabe fakturatzeari (3.750 € eta 12.000 € artean) eta autonomoen faktura atzeratuak gehi errekaruak (%20), eta, hala badagokio, berandutze-interesak ordaindu behar izatea. Penalizazioaren denbora zenbatzeko data Ogasuneko altaren bidez lortuko du Gizarte Segurantzak.

Hala ere, eta zalantza aurrean, beharbada komeni da gai honetan aditua den pertsona baten aholkularitza jasotzea, alderdi horiei guztiei buruz nahiz autonomo gisa alta emanez gero izan ditzakegun hobariei buruz xehetasunez informatu gaitzan, inolako arriskurik izan gabe.

8.1.5. Fakturak egitea; zer izan behar dugu kontuan?

Dakigun moduan, peritu-irizpen judiziala edo alderdikoa egiterakoan, faktura egin beharko dugunez, aplikatu beharreko zerga-motak kontuan izan beharko ditugu; hau da, BEZa eta PFEZa.

BEZari dagokionez, zer portzentaje behar dugu aditu-irizpen batean?

Peritu-irizpen batean aplikatu beharreko BEZa %21ekoa da. Zerga hori hiru hilean behin ordaindu beharko dugu Ogasunean 303 ereduaren bidez.

PFEZri dagokionean, zein da atxikipen horren ehunekoa?

PFEZaren portzentajea, oro har, %15ekoa da, nahiz eta autonomo berrientzat salbuespenak izan, atxikipen txikiagoa (%7) aplika baitezakete lehenengo jarduera-urtean zein hurrengo bi urteetan.

Egiten ditugun faktura guztiek PFEZaren atxikipena izan behar dute?

Ez. Gure fakturek PFEZ atxikipena izango dute baldin eta faktura pertsona autonomo edo enpresa bati egiten badiogu; pertsona fisikoari fakturatzen badiogu, ez dugu aplikatu beharrik izango.

Lehen kasua gerta daiteke, alderdi-peritu gisa jardutean, peritu-irizpenaren gaineko faktura zuzenean kontratatu gintuen abokatuaren izenean egin behar badugu. Bigarren kasua, berriz, atxikipenik gabe fakturatzea, gertatuko da faktura hori gure bezeroaren izenean egin behar dugunean, gehienetan pertsona fisikoa izan ohi baita.

Era berean jokatu dugu epaileak izendatzen gaituenean; hau da, ez dugu atxikipenik egin behar izango irizpena eskatutako alderdiak edo alderdiek (faktura eman behar diogunak; zenbatekoaren erdia alderdi bakoitzari, irizpena bi alderdiek eskatu badute) pertsona fisiko gisa jarduten badute, eta atxikipen hori egin beharko dugu prozeduran profesional edo enpresa gisa aritzen badira.

BEZa nahiz PFEZa Zerga-oinarriaren gainean kalkulatzeko dira (peritu-irizpenaren truke kobratuko dugun prezioa), lehenak batuz eta bigarrena kenduz.

Adibidea 1º: BEZa eta PFEZaren atxikipena dituen faktura

Zerga-oinarria: $50 \text{ €} + 10,5 \text{ €} (\%21\text{eko beza}) - 7,5 \text{ €} (\%15\text{eko pfeza}) = 53 \text{ €}$

Adibidea BEZa duen faktura eta PFEZaren atxikipenik ez duena

Zerga-oinarria: $50 \text{ €} + 10,5 \text{ €} (\%21\text{eko beza}) = 60,5 \text{ €}$

8.1.6. Euskal autonomia erkidegoan fakturak egitea

Euskal Autonomia Erkidegoan (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) fakturak egiteko TicketBai sistema erabili behar da nahitaez; hau da, Euskadin ezarritako fakturazio-sistema, fakturazioko eta kudeaketa fiskaleko prozesuak automatizatzeko eta digitalizatzeko, iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko eta jarduera ekonomikoen gaineko kontrol handiagoa izateko helburuak dituena. Sistema horrek jarduera ekonomikoak garatzen dituzten eta EAEko Foru Ogasunek PFEZen edo Sozietateen gaineko Zergan duten araudi-eskumenaren mende dauden pertsona fisiko eta juridiko guztiei eta nortasun juridikorik gabeko erakundeei eragiten die.

<https://www.holded.com/es/ticket-bai>

ARABA

Arabako Foru Aldundiak FakturAraba web aplikazioa eskaintzen du, TicketBAI sistemaren baldintzak betetzen dituzten fakturak jaulki ahal izateko.

FakturArabak QR kodea eta TicketBAI identifikatzailea dituzten fakturak sortzen ditu pdf formatuan, eta informazioa Arabako Foru Ogasunera bidaltzen du.

Aplikaziora sartzeko, identifikatzeko baliabide elektroniko bat eduki behar da (B@KQ edo ziurtagiri elektronikoa), eta egindako faktura bakoitzak bidaltzen den fitxategiaren sinadura elektronikoa behar du.

<https://web.araba.eus/es/hacienda/fakturaraba>

BIZKAIA

Bizkaian, Batuz bezala ezagutzera eman denaren barruan sartzen da TicketBAI.

<https://www.batuz.eus/es/inicio>

GIPUZKOA

Gipuzkoan FakturaBai erabiltzen da; hau da, TicketBAI sistemaren baldintzak betetzen dituzten fakturak egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako pertsonen eta erakundeen eskura jarri duen web aplikazioa.

<https://www.gipuzkoa.eus/es/web/ogasuna/ticketbai/fakturabai>

8.1.7. Jarduera librean profesional gisa jarduten badugu, gure lana fakturatu behar dugu, baina zenbat kobratu dezakegu peritu-irizpen baten truke?

Peritu-irizpenaren truke fakturatu beharreko prezioa librea da; alegia, gure ustez lanak balio duena kobratu dezakegu. Eta hori horrela da Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 1. artikuluan, debekatu egiten delako prezioak, gomendio kolektiboak edo merkataritzako edo zerbitzuko beste baldintza batzuk zuzenean edo zeharka finkatzea, lehia merkatu nazional osoan edo zati batean murrizteagatik. Era berean, Elkargo Profesionalen Legea aldatzen duen 25/2009 Legeak, abenduaren 22koak, 5. artikuluko ñ letra kentzen du, eta, bertan, ordainsarien gutxi gorabeherako baremoak ezartzeko horiek zuten ahalmena jasotzen zen. Beraz, hori kontuan hartuta, debekatuta geratu ziren gure Elkargo Profesionaletan hainbat zerbitzuren inguruan aurki genitzakeen gutxi gorabeherako baremoak, eta, horien artean, peritu-irizpenak egitea.

Aditu-irizpenaren kuantifikazioari dagokionean, epaileak izendatzen bagaitu, kontuan izan behar dugu prozeduran dagoen alderdiak edo dauden alderdiek doako laguntza juridikoa izateko eskubidea duten edo irizpena agintaritzak judizialak ofizioz eskatu duen. Horren aurrean, eta hura kobratzeko, gure Autonomia Erkidegoko legerian zehaztutakoa bete behar dugu, betiere Justizia-arloan eskumenak transferituta izanez gero, eta bertan perituaren laguntza kobratzeko hitzartutakoa jarraitu beharko dugu.


Adibide gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko Doako Laguntza Juridikoari buruzko urriaren 30eko 153/2018 Dekretua aipa dezakegu; hain zuzen ere, 50. eta 51. artikuluetan doako peritu-laguntza arautzen da.
<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2018/11/1805444a.pdf>

Edo abenduaren 1eko 104/2021 Foru Dekretua ere aipa genezake, Nafarroako Foru Komunitatean Doako Laguntza Juridikoaren inguruan aplika daitekeen Erregelamendua onartzen duena, 45. artikulutik 52. artikulura laguntza hori arautzen baita. <https://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=54421>

8.1.8. Zer nolako alderdiak/kontzeptuak kontuan izan behar ditugu peritu-irizpenaren aurrekontua egiterakoan?

Aurrekontuan sartu behar ditugun kontzeptuen artean, espediente judizialaren azterketa, egindako elkarrizketak eta etxez etxeko bisitak, peritu-irizpena bera eta berrespena aurkitzen dira. Bestalde, kontuan izan behar dugu irizpenaren zailtasun-maila, zenbat eta zailagoa izan, orduan eta garestiagoa izango baita. Garrantzitsua da aurrekontu horretan prezioek BEZa duten ala ez zehaztea. Halaber, ostatu-gastuak, dietak eta joan-etorrien gastuak (behar izanez gero) aparte kobratuko direla adieraziko dugu.

Kontuan hartu gako-hitz hauek



LAABen, Ogasunean,
EJZn alta ematea

Fakturak
egitea

Ordainsariak
askatasunez
ezartzea

Profesional
autonomoa

Peritu-irizpenaren
aurrekontua egitea

BEZ PFEZ

9. HORREN INGURUKO BESTE GAI BATZUK

9.1. Gizarte-zerbitzuak eta justizia-administrazioa

Administrazio Publikoarentzat lan egiten dugunean, zehazki Gizarte Zerbitzuetan, gerta daiteke Justizia Administrazioetik gai jakin bati buruzko txosten sozial bat eskatzea (adibidez, desgaitasuna duen pertsona batek behar izan ditzakeen laguntza-neurrien inguruko informazioa ematea). Horren aurrean, honako hauek bezalako zalantzak izan ditzakegu:

9.1.1. Gizarte Zerbitzuetan lan egiten badugu eta arazo bati buruzko txosten soziala eskatzeko eskaera judiziala iristen bazaigu, uko egin al diezaiokegu?

Ez. Lehenik eta behin, laguntzeko betebeharra dugulako, legez ezarritako baldintzak direla-eta, Lan-arloko Jurisdikzioko organo eta agintarien lana errazteko betebeharra, eskatutako datuak, dokumentuak, txostenak edo argibideak emanez.

Betebehar hori Karta Magnan arautzen da, 118. artikuluan:

Nahitaezkoa da Epailen eta Auzitegien epaiak eta gainerako ebazpen irmoak betetzea nahiz horiek prozesuan zehar eta ebatzitakoa betearazteko eskatutako laguntza ematea.

Halaber, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean arautzen da; 141. artikulua ondorengoa ezartzen du:

1. Administrazio Publikoek betebehar hauek izango dituzte:
 - c) Beste Administrazioei beren eskumenak erabiliz garatzen duten jardueraren inguruan behar duten informazioa ematea.
 - d) Beren eremuan, beste Administrazioek beren eskumenak eraginkortasunez gauzatzeko eska dezaketen laguntza ematea.

Eta, bigarren, ezin diezaiokegulako eskaera judizial bati uko egin, agintaritzari (kasu honetan, judiziala) desobeditze-delitu bat egiteko arriskua izan gabe.

9.1.2. Noren izenean egingo dugu txosten sozial hori, peritu gisa edo lekuko-peritu gisa?

Gizarte-langileak peritu gisa jarduten badu, txosten sozial hori peritu-irizpen bat ez denez, ezin dugu peritu-jardueraz hitz egin.

Pertsona baten inguruan txosten soziala eskatu badigute eta gu pertsona horrekin esku hartzen ari bagara, lekuko-perituaz arituko ginateke, profesionalak kasua alde aurretik ezagutzeagatik, horixe baita figura juridiko horri buruz hitz egiteko baldintzetako bat, eta agintaritza judizialak behar dituen ezagutza espezializatuak eman ditzake.

Beste kontu bat da pertsona baten inguruan txosten soziala eskatzea eta guk pertsona hori ez ezagutzea Gizarte Zerbitzuen erabiltzailea ez izateagatik. Kasu horretan, Epaitegiari erantzun diezaiokegu, pertsona hori ezagutzen ez dugunez, ezinezkoa dela txosten hori egitea. Hala ere, egin behar dugun ala ez Epaitegiak esango du.

9.1.3. Txosten sozialak peritu-izaera al du?

Erakunde publiko batek egiten duen txosten soziala ezin da peritu-irizpentzat hartu ondorio guztietarako. Dena den, esan dezakegu epaileak peritu-xedearekin erabiliko duela; izan ere, peritu-irizpenarekin gertatzen den moduan, haren eskaera prozeduran dagoen gai baten inguruko ezagutza espezifikoak lortzeko egin da, gai hori ebatzi ahal izate aldera.

Kasu horretan, komenigarria litzateke adieraztea txosten hori peritu-irizpen baten berezko metodologiarik gabe egin dela, txosten hori irizpentzat hartu ahal izateko.

9.1.4. Epaitegitik dei al diezagukete alde aurretik eskatu ziguten txosten soziala berrestera joateko?

Bai. Epaileak beharrezkotzat jotzen badu eta alderdia horrela eskatzen badute.

9.1.5. Txosten soziala abokatu batek modu pribatuan eskatzen badigu, hori egiteari uko egin al diezaiokegu?

Abokatu batek, modu pribatuan, Gizarte Zerbitzuetara jotzen badu prozedura judizial batean aurkezteko txosten sozial bat eskatzeko, gure ustez ez litzateke bidezkoa izango txosten hori egitea, profesional horrek alderdi-peritu baten zerbitzuak kontratatu beharko bailituzke eta, ondorioz, peritu-irizpen hori ordaindu.

9.2. Beste erakunde batzuk


Bestalde, gerta daiteke txosten sozial horiek Epaitegiak eskatzea, irabazi-asmoko edo irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuetan lan egiten ari garelako; hala nola, adinekoen egoitzak, desgaitasuna duten pertsonen egoitzak, eguneko zentroak, desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko fundazioak edo beste edozein mota. Hemen esan dezakegu txosten hori egiten duen Gizarte Langintzako profesionalak testigu-peritu gisa egingo duela, kasua aurrez ezagutzen duelako, baina oraindik ezin dugu peritu-irizpenaz hitz egin, nahiz eta, aurrean esandako moduan, txosten horrek prozeduran aztertzeko dagoen gaiaren inguruan Epaileari aholkularitza eman.

Txosten hori egiteko betebeharrari dagokionean, aldeztu aurretik adierazitakoa errepikatuko dugu: eskaera judizial bati laguntzeko eta erantzuna emateko betebeharra.

Bestalde, gerta daiteke txosten sozial hori pertsona berak edo senitarteko batek eskatzea; kasu horretan, txostena egin beharko genuke lan egiten ari garen erakundeko erabiltzailea izateagatik.

Txostena abokatu batek eskatzen badigu, gure ustez, kasu horretan, ez litzateke bidezkoa txostena egitea, alderdi-peritu baten txostena eskatu beharko bailuke.

Kontuan hartu gako-hitz hauek



Lankidetzabetebeharra

Gizarte-Zerbitzuak

Testigu-peritua

Eskaera judizialari erantzuna ematea

Zitazio judiziala

Txosten Soziala

10. ETA AMAITZEKO...

Gida honen bidez, peritu-praktika sozialean lagungarri izan ditzakezun argibide, ekarpen, iradokizun eta jarraibide orientagarri batzuk eskaini nahi izan dizkizugu, lan hori eska daitekeen zorrotasunaren eta kalitatearen barruan garatzen laguntze aldera. Era berean, Gizarte Lan Forentsea ikusarazten lagundu nahi izan dugu, gure diziplinatik Zuzenbidearen mundura egin dezakegun ekarpena nabarmenduz.

Hemen azaldutako gaiak —horiei erantzuna ematen ahalegindu gara— peritu-jardueraren inguruan maiz izan ohi diren zalantzak baino ez dira; praktika profesional hori oraindik ezezaguna da bai operadore juridiko batzuentzat, bai gure diziplinaren zati batentzat ere.


Beharbada, askotan pentsatu izan dugu peritu sozial gisa jardutea dela, besterik gabe, peritu-irizpen bat egitea, horretarako deia egiten digutenean, eta hortxe amaitzen dela gure eginkizuna, baina hori errealitatetik oso urrun dago. Egiaztatu ahal izan dugun moduan, epaileak izendatzen gaituen edo alderdi gisa kontratatzen gaituzten unean bertan, erantzukizun profesional bat hartzen dugu gure gain, eta hasten den prozesuan jarduera gehigarriak egin beharko ditugu, legezkoak nahiz fiskalak izan daitezkeenak.

Peritu baten funtzioa zein den definitu dugu, gure kasuan peritu sozialarena, eta hori gai bat ebatzi ahal izateko ezagutza espezializatuak ematea da, datu horiek behar izateagatik eta agintaritza judizialak ez izateagatik. Hori guztia, azken finean, azken hori ilustratzearren.

Halaber, peritu-irizpenak froga prozesal gisa betetzen duen helburua aipatu dugu. Eta perituak funtzio hori bete ahal izan dezan, bere helburua beteko duen peritu-irizpen bat prozedura judizialean aurkeztuz, prestakuntza espezializatua izatea beharrezkoa dela adierazi dugu, agintaritza judizialak ebatzi beharreko gaiaren inguruan behar dituen ezagutza espezializatu horiek eman ahal izateko.

Espezializazio horren beharra ukatzea akatsa ez ezik, zorrotasunik eta kalitaterik gabeko praktika profesionala ere bada, osagai etikorik gabeko praktikarekin batera, eta horren emaitza da, besteak beste, praxi txar bat egitea; hots, gure lanbideak arlo judizialean prestigiorik ez izatea.

Gogoan izan behar dugu peritu-irizpen bat egiteko arrazoiak agintaritza judiziala ilustratzea dela; hortaz, erantzukizun handikoa bezala definitzen dugun jarduera profesional hori ezin da burutu emaitzak kontuan hartu gabe edo horien gaineko ardurarik izan gabe. Hori dela-eta, osagai etiko hori garrantzitsua da, eta, profesional gisa, horretarako beharrezkoak diren gaitasunak eta trebetasunak erabiliz egitera behartuta gaude.



11. BIBLIOGRAFÍA

- Alcazar, R. (2014). “Diseño de una escala para la evaluación de la custodia compartida en el ámbito judicial. Estrategia para la validación científica de la escala”. Azarbe. Gizarte Langintzako eta Ongizateko Nazioarteko Aldizkaria, 3. Zk.
- Gizarte Langintzako Kontseilu Orokorra. (2012). Gizarte Langintzako Kode Deontologikoa.
http://www.consejotrabajosocialcyl.org/codigo_deontologico_2012.pdf
- Dell’Aglío, M. (2004). “La práctica del perito trabajador social. Una propuesta Metodológica de intervención social”. Espacio argitaletxea, Argentina.
- De Luca, E. Navarro, F, eta Cameriere, R. (2013). “La prueba pericial y su valoración en el ámbito judicial español”. Zientzia Penaleko eta Kriminologiako aldizkari elektronikoa. 15-19 or.
- Gómez Gómez, F. eta Soto Esteban, R. (2015). “Nuevas tareas, nuevos lugares del trabajo social judicial en España”. <http://www.scielo.br/pdf/sssoc/n121/0101-6628-sssoc-n121-0125.pdf>
- Gómez, F. eta Soto, R. (2015). “El trabajador social en la Administración de Justicia española en los procesos de rupturas matrimoniales”. Azterketa soziojuridikoak, 7(2), 131-166 or.
- González Pillado, E. e Iglesias Canle, I. (s.f). “La prueba pericial en la nueva Ley de Enjuiciamiento Civil”. <http://www.rexurga.com/pdf/COL166.pdf>
- Mateos, M eta Ponce, L. (2016). “Gizarte-lan judizialean aplikatutako teknika eta tresna nagusiak”. Mateos, M eta Ponce, L. (Koord), “El trabajo social en el ámbito judicial” (63-97 or.). Madrilgo Gizarte Langintzaren Elkargo Profesionala.
- Moreno, J. (2018). “El dictamen pericial social. Una propuesta metodológica”. Malagako Gizarte Langintzaren Elkargo Profesionala.
- Moreno, J. eta Moreno, I. (2023). “Medidas de apoyo a las personas con discapacidad. Aportación del Trabajo Social”. Malagako Gizarte Langintzaren Elkargo Profesionala.

- Moreno, J. (2023). “La especialización en la práctica pericial. Una cuestión de ética profesional”. TSDIFUSIÓN aldizkaria, ISSN 2341-0345. Malagako Gizarte Langintzaren Elkargo Profesionala. <https://www.tsdifusion.es/la-especializacion-en-la-practica-pericial-una-cuestion-de-etica-profesional>
- Moreno, J. eta Moreno, I. (2023). El dictamen pericial social en los procedimientos judiciales sobre provisión de apoyo a personas con discapacidad. TSDIFUSIÓN aldizkaria, ISSN 2341-0345. Malagako Gizarte Langintzaren Elkargo Profesionala. <https://www.tsdifusion.es/el-dictamen-pericial-social-en-los-procedimientos-judiciales-sobre-provision-de-apoyo-a-personas-con-discapacidad>
- Ponce de León, A. Krmpotic, C. (2012). “Trabajo Social Forense. Balance y perspectivas”. Espacio argitaletxea, Argentina.
- ESPAINIAKO ERREGE AKADEMIA: Espainieraren hiztegia, 23. ed., [23.7 bertsioa linean]. <https://dle.rae.es>
- Reyes, Ch. (2014). El oficio de perito trabajador social: reflexiones acerca de la construcción y fundamentación del peritaje social. RUMBO TS, 9. zk., 113-128. <http://www.ts.ucr.ac.cr/binarios/revistas/cl/rv-cl-rumbosts-009.pdf>
- Reyes, Ch. (2018). Una mirada metodológica al peritaje social: análisis, consideraciones y propuestas situada. Margen: gizarte langintzaren eta gizarte-zientzien aldizkaria, ISSN-e 0327-7585, 89. zk. http://www.margen.org/suscri/margen89/reyes_89.pdf
- Simón, M. (s/f). “Aportaciones del Trabajo Social a la pericial de familia”. <http://docplayer.es/6499532-Aportaciones-del-trabajo-social-a-la-pericial-de-familia.html>

LEGERIA

- 8/2021 Legea, ekainaren 2koa, desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko legeria zibila eta prozesala aldatzen duena. BOE, 132. zk., 2021/06/03koa. <https://www.boe.es/eli/es/l/2021/06/02/8/con>
- 40/2015 Legea, Sektore Publikoko Araubide Juridikoarena. BOE, 236. zk., 2015/10/02koa. <https://www.boe.es/eli/es/l/2015/10/01/40/con>
- 25/2009 Legea, abenduaren 22koa, zerbitzu-jardueretan aske sartzeari eta aritzeari buruzko Legea egokitzeko asmoz hainbat lege aldatzeari buruzkoa. BOE, 308. zk., 2009/12/23koa. <https://www.boe.es/eli/es/l/2009/12/22/25/con>

- 20/2007 Legea, uztailaren 11koa, Lan Autonomoaren Estatutuari buruzkoa. BOE, 166. zk., 2007/07/12koa. <https://www.boe.es/eli/es/l/2007/07/11/20/con>
- 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehia defendatzekoa. BOE, 159. zk., 2007/07/04koa. <https://www.boe.es/eli/es/l/2007/07/03/15/con>
- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurrean Babesteko neurriak jasotzen dituenak. BOE, 313. zk., 2004/12/29koa. <https://www.boe.es/eli/es/lo/2004/12/28/1/con>
- 1/2000 Legea, urtarrilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena. BOE, 7. zk., 2000/01/08koa. <https://www.boe.es/eli/es/l/2000/01/07/1/con>
- 1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, doako laguntza juridikoari buruzkoa. BOE, 11. zk., 1996/01/12koa. <https://www.boe.es/eli/es/l/1996/01/10/1/con>
- 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa. BOE, 281. zk., 1995/11/24koa. <https://www.boe.es/eli/es/lo/1995/11/23/10/con>
- 6/1985 Lege Organikoa, uztailaren 1ekoa, Botere Judizialarena. BOE, 157. zk., 1985/07/02koa. <https://www.boe.es/eli/es/lo/1985/07/01/6/con>
- 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Administrazio Publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunei buruzkoa. BOE, 4. zk., 1985/01/04koa. <https://www.boe.es/eli/es/l/1984/12/26/53/con>
- 10/1982 Legea, apirilaren 13koa, Gizarte Laguntzaileen Elkargo Ofizialak sortzeari buruzkoa. BOE, 99. zk., 1982/04/26koa, 10528-10528 or. (orrialde 1) <https://www.boe.es/eli/es/l/1982/04/13/10>
- 11/1981 Legea, maiatzaren 13koa, seme-alabatasunari, guraso-ahalari eta ezkontzaren araubide ekonomikoari dagokienean. BOE, 119. zk., 1981/05/19koa, 10725- 10735 orrialdeak (11 orrialde). <https://www.boe.es/eli/es/l/1981/05/13/11>
- 30/1981 Legea, uztailaren 7koa, deuseztasun-, banantze- eta dibortzio-kausetan jarraitu beharreko prozedura arautzen duena. BOE, 172. zk., 1981/07/20koa, 16457-16462 orrialdeak (6 orrialde). <https://www.boe.es/eli/es/l/1981/07/07/30>
- 2/1974 Legea, otsailaren 13koa, Elkargo Profesionalei buruzkoa. BOE, 40. zk., 1974/02/15koa. <https://www.boe.es/eli/es/l/1974/02/13/2/con>

- 141/2021 Errege Dekretua, martxoaren 9koa, doako laguntza juridikoaren Erregelamendua onartzen duena. BOE, 59. zk., 2021/03/10ekoa, 27586-27624 orrialdeak (39 orrialde). <https://www.boe.es/eli/es/rd/2021/03/09/141>
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duena. BOE, 261. zk., 2015/10/31koa. <https://www.boe.es/eli/es/rdlg/2015/10/30/5/con>
- 8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena. BOE, 261. zk., 2015/10/31koa. <https://www.boe.es/eli/es/rdlg/2015/10/30/8/con>
- 174/2001 Errege Dekretua, otsailaren 23koa, Gizarte Laneko Diplomatuak eta Gizarte Laguntzaileen Elkargo Ofizialen Estatutu Orokorrak onartzen dituena. BOE, 56. zk., 2001/03/06koa. <https://www.boe.es/eli/es/rd/2001/02/23/174/con>
- 598/1985 Errege Dekretua, apirilaren 30ekoa, Estatuko Administrazioaren, Gizarte Segurantzaren eta haien mendeko Ente, Erakunde eta Enpresetako langileen bateraezintasunei buruzkoa. BOE, 107. zk., 1985/05/04koa. <https://www.boe.es/eli/es/rd/1985/04/30/598/con>
- 1322/1981 Errege Dekretua, uztailaren 3koa, Familia Epaitegiak sortzeari buruzkoa. BOE, 162. zk., 1981/07/08koa, 15577- 15577 orrialdea (orrialde 1). <https://www.boe.es/eli/es/rd/1981/07/03/1322>
- 1889ko uztailaren 24ko Errege Dekretua, Kode Zibilaren edizioako testua, maiatzaren 26ko Legea betez argitaratzeko agindutakoa. Madrilgo Gaceta, 206. zk., 1889/07/25ekoa. [https://www.boe.es/eli/es/rd/1889/07/24/\(1\)/con](https://www.boe.es/eli/es/rd/1889/07/24/(1)/con)
- 104/2021 Foru Dekretua, abenduaren 1ekoa, Nafarroako Foru Komunitatean aplikatzen daitekeen Doako Laguntza Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena. NAO, 291. zk., 2021/12/29koa. <https://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=54421>
- 153/2018 Dekretua, urriaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa. EHAA (Euskal Autonomia Erkidegoa), 2018/11/06koa. <https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2018/10/30/153/dof/spa/html/webleg00-confich/es/>
- 2530/1970 Dekretua, abuztuaren 20koa, norberaren konturako langileen edo langile autonomoen Gizarte Segurantzaren araubide berezia arautzen duena. BOE, 221. zk., 1970/09/15ekoa, 15148-15156 orrialdeak (9 orrialde). <https://www.boe.es/eli/es/d/1970/08/20/2530>

